


URDAIBAI

XI Urte
2025
zenb.º 41
.....

© MAGAZINE



GALERNAK,

URDAIBAICO EKATX HANDIAK

| HATX ETA HARKAITZAK, ITSASOAREKIKO MUGA

| ALKARRIZKETA FERNANDO G. BAPTISTA, BUSTURIAL-
DEA MUNDUKO DISEINATZAILE ONENAREN OBRAN

| LUMOKO UDALETXEA

| ARTESANIA VASCA, HARRIAK
BETIROKOAREN GOGORTASUNA DAUKO

| BERDELA

| PROZESIONARIAREN ARRISKUAK

1/6

NEURRI HONEK
PRODUKTUAREN ARRISKUA
ADIERAZTEN DU. HONETAN,
1/6 ARRISKU TXIKIA ETA 6/6
ARRISKU HANDIA DAGOELA
ADIERAZTEN DU.

KUTXABANK KREDITU ERAKUNDEETAKO
GORDAILUEN BERMERAKO FONDOARI
ATXIKITA DAGO, URRIAREN 14KO 16/2011
LEGE DEKRETUAN EZARRITAKOAREN
ARABERA. FONDO HONETAN BERMATUTAKO
GEHIENEO DIRU KOPURUA, GAUR EGUN,
GORDAILUGILE BAKOITZEKO 100.000
EUROKOA DA.

4000€-ra

arte zure ● nomina helbideratzeagatik. Bai, horixe!

(Ala 600€ Kutxabank Storen
erosteko).*



kutxabank
Benetan.

*ESKaintza eskusiboa nomina KUTXABANKEN LEHEN ALDIZ 2025/06/30A BAINO LEHEN AURREZKI KONTU BATEAN HELBIDERATZEN DUTEN BEZEROENTZAT. 200€-KO ABONUA EDO 300€-KO BONUA, KUTXABANK STOREN GASTATZEKO, HILEKO 800€ EDO GEHIAGOKO ZENBATEKO GARBIA DUTEN NOMINETARAKO. 36 HILABETE IRAUTEKO KONPROMISOA. 30 URTE ARTEKO GAZTEENTZAT, HAUEK BARNE, 12 HILABETE IRAUTEKO KONPROMISOA HARTUKO DA. KONTUAN 400€ ABONATZEA ALA 600€-KO BONUA KUTXABANK STOREN GASTATZEKO, 2.500€ EDO GEHIAGOKO ZENBATEKO GARBIA DUTEN NOMINETARAKO. 36 HILABETE IRAUTEKO KONPROMISOA. KONTUKO GUTXIENEO SALDOA: 250€. BONUA EMATEA ATXIKI BEHARREKO KAPITAL HIGIGARRIAREN ERRENDIMENDUTZAT HARTZEN DA. BEZEROAK EZARRITAKOA BETETZEN EZ BADU, ZIGORRA EZARRIKO ZAIO EZ BETETZEAGATIK. AURREZKI KONTUA: BALDINTZAK **KUTXABANKEN AURREZKI KONTUAN** IKUSI.

NORTASUNA, ETORKIZUNAREN SINONIMOA

Pentsau gura dogu, geure munduko txokoa, landa-eremua etorkizun posible baten sinonimo dala, naturarekiko harmo- nian, memoria historikoan, sormenean eta inklusioan oinarri- tuta, garapenerako eragile moduan. Busturialdean, urtaroen erritmora igaro da bizitza belaunaldiz belaunaldi, tokiko nor- tasun sendo bat eratuz, hizkuntza, ohitura eta jaiekaz, eta ho- rreek zaintzen jarraitzen dogu.

Bertoko biztanleek eta erakunde eskudunek badakite planeta mehatxatzen daben ingurumen-arazoez eragiten deuskuela, eta, beraz, garapen ekonomiko jasagarria aldarrikatzen da. Martxan dagoen partaidetza-foroetan, nekazaritza-praktika arduratsuak, energia eta industria garbiak eta kultura- eta lan- da-turismo konzientea proposatzen dira.

Tokikoari beste ezaugarri bat gehitu jako apurka-apurka: etor- kinen presentzia esanguratsua, bizi-kalidadeak eta lan-auke- rek erakarrira, batez be ostalaritzaren sektorean. Aniztasun hori mehatxutat hartu beharrea, integrazioaren, alkarre- kiko errespetuaren eta bizikidetzaren aldeko apustua egiten dogu biztanleok.

Ondare historiko material eta immaterialari balioa emotea- gaz batera — aztarnategi arkeologiko eta industrialak edo bertsolaritza bezalako ahozko tradizioak —, balio handi- ko hezkuntza-, kultura- eta turismo-baliabideak, ezin dogu ahaztu sormen-industrien potentzial eraldatzailea, tokiko ekonomia aberasteko eta dibersifikatzeko, enplegua sortze- ko eta talentua erakartzeko bide bezala. Artisautzako, musi- kako, diseinuko, ikus-entzunezko produkzinoko edo ingurua- gaz lotutako proiektu artistikoetako tailerrak, barrikuntza eta sustraitzea uztartzen dabezenak, geure herrietako bizitza eta ekonomia modu jasagarrian dinamiza daikenez.



ARGITARATZAILE

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangóiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA: 2025. 05. 20



AURKIBIDE



04 ERREPORTAJEA. Galernak: Urdaibaiko ekatx handiak

11 DANONARTEAN.

18 VISIT URDAIBAI. Hatx eta harkaitzak, itsasoarekiko muga

21 KOLABORAZINOA. Anton Gandarias, Bustu- riako Memoria Historikoaren Batzordeko kidea.

22 ALKARRIZKETA. Fernando G. Baptista, Busturialdea munduko diseinatzaile onenaren obran

28 LEKUKO. Lumoko Udaletxea

32 KALERIK KALE. Artesania Vasca

36 SALTSA PORRU. Berdela

38 BERDEAN. Prozesionariaren arriskuak

44 LABUR LABUR.



Urdaibaiko ekatx handiak

"Bada berba serio bat, gatz eta malko zaporekoa, galizismo sakon eta beldurgarria, ozena eta goibela, Kantauriko arrantzaleen holokaustoari lotua beti: galerna". Rafael González Echegaray historialari, itsasgizon, abokatu eta politikariaren berbak dira hauek, eta geure kostaldea astindu dauen fenomeno meteorologiko kaltegarri horrek (MFK) zer suposatzen dauen deskribatzen dabe. Izan be, mugarri historiko handiak eta arrantza-arteetan eta arrantza-moduetan funtsezko aldaketak be oso lotuta dagoz denborale hauekaz.

Zientifikoki, galerna haizearen bat-bateko aldaketa da, hego-haizetik mendelbaldeko-ra pasatuz. Mendebaldeko haize-bolada bortitzekaz batera, tenperaturak nabarmen jaitsi eta hodeiak nagusitzen dira. Hala azaldu dau Jose Antonio Aranda Euskalmeteko zuzendariak: *"Galerna mesoeskalan gertatzen dan fenomeno atmosferikoa da, hau da, ekatx eskalaren eta eskala sinoptikoaren edo eskala handi edo ziklikoaren arteko tarteko tamainan. Kantauri itsasoan ezagutzen doguzen galernak, munduko oso leku gitxitan gertatzen dira. Berezitasun hau emoten da, hemen hainbat prozesuk bat egiten dabelako. Ipar hemisferioan kostalde laua dogu, arteza, aire beroa baino gehiago pisatzen dauen aire hotza mugitzea erraztuaz, gure kasuan, Galiziatik Euskal Herri beroagora, kostaldea jarraituaz. Fenomeno fisiko honi lurraren errotazinoaren Coriolis efektua gehitzen jako eta honek ipar hemisferioan haizeak eta korronte ozeanikoak eskumantantz desbideratzeko joera eragiten dau. Hau gertatzen danean, Galiziako aire hotzeko masek barnealdera igarotzea eragozten deutoen mendiekaz topo egiten dabe, eta kostaldean aurrera egiten dabe. Aurrera egin ahala, aire bero gehiago aurkitzen dau eta hegoaldeko haize epela danean abiadura handitzen dau Hondarribiraino, Iparraldeagaz talka egitean ahulduz. Horregaitik, galernak oso zabalera txikia hartzen dabe, milia gitxi batzuk itsasoan eta kilometro gitxi lehorrean."*

Galerna tipikoak, 90 km/h-ko abiadura gaitzen ez daben haizeekaz, maiatza eta iraila bitartean agertzen dira normalean, hondartzako harea altxatu, eguzkitakoak hegaldatu eta itsasoa nahasten dauen haize gogorra. Fenomeno hau

Galernak iragartzea zaila da, iragarpen meteorologikoen ereduak ez dira beti nahikoak bat-bateko denborale horreei garaiz aurrea hartzeko

gertatzen da tenperaturan alde handia dagoenean Galiziaren eta Euskadiren artean, hegoaldeko aire beroagaz hemen. Nahiz eta galerna hauek askotan hondartza eguna izorratzen daben, ez dira ezer aurrealdeko galernak deritzenen aldean. Horreek markatu dabe geure historia.

Aurrealdeko galerna edo enbata gertatzen da bat-bateko fronte hotz batek Kantauriko kostaldetik ezohiko bizkortasunez aurrera egiten dauenean. Fronte hotz hori Bizkaiko Golkoa zeharkatzen dauen denporale txiki baina sakon baten eraketa azkarrari lotuta egon ohi da. Ziklogenesi leherkorra izenez ezagutzen dogun fenomenoa. Enbata horreek oso arriskuak dira, 150 km/h-ko abiadura gaitzen haize-boladakaz eta itsasoaren okertze drastikoa eraginez. Urteko edozein sasotik gerta daitezke eta oso zaila izaten da hauek igartzea.

ERRONKA METEOROLOGIKOA

Eguraldia iragartzeko tekniketan izandako aurrerapenei esker, normalean, kontrako fenomeno meteorologiko beldurgarriak iristear direla aurretik ezagutzen dogu. Fenomeno hauen artean, besteak beste: eurria, edurteak, haizeak, ekatxak, tenperatura maximoak eta minimoak, kostaldeko fenomenoak, hautsa suspentsinoan, rissagak, lainoak, desizozteak, edur-jausiak eta galernak edo enbatak. Halanda be, aurrerapenak izan arren, galernak erronka dira adituentzat. Galernak iragartzea zaila da, iragarpen meteorologikoen ereduak ez dira beti nahikoak bat-bateko denborale horreei garaiz aurrea hartzeko.

Ezusteko enbata horreek ustebakoan ez harrapatzeko, etenbako zaintza behar da, oso hurbiletik, euskal kostaldean, baina

baita Kantauriko kostaldean be. Seinale esanguratsu bat tenperaturaren diferentzia nabarmena da, 20 graduraino, eta presino atmosferikoaren aldaketa, Asturiasen eta Kantabrian gora eta Euskadin behera egiten dauenean.

Halanda be, fenomeno meteorologiko apetatsu horri despistean jolastea gus-tatzen jako, eta aldaketa horreek ordu erdi edo ordubete lehenago baino ezin dira detektau. Horregaitik, beharrezko bihurtzen dira berehalako iragarpen-sistemak, oso epe laburreko iragarpena. Hemen, teknologia barriak eta *social media*k abisuetarako eta alertetarako tresna bereziki erabilgarriak dira. Ildo horretan, Euskalmet, euskal meteorologia agentzia eta antzeko zerbitzu meteorologikoen X (Twitter) bezalako sare sozialak erabiltzen dabez bilakaera meteorologikoaren azken orduaren barri emoteko eta herritarrei abisuak emoteko (@euskalmet).

>>>

Kantauri itsasoan ezagutzen doguzen galernak, munduko oso leku gitxitan gertatzen dira



Rafael Monleónen Pazko Zapatuko Enbataren irudia (1878). **Jatorria:** Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia - Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugarri historikoak markau dabez galernak, gaur egun benetako tragediak bezala gogoratuak

"Fronteen atzean dagoen fisika deskubridu da orain dala hamarnaka urtetik hona. Baina mesoeskalaren tamainako prozesua orain dala 30 urte baino gitxiago aurkitu zan. Meteorologiako Institutu Nazionala konturatu zan Kalifornian egindako ikerketate batek aztertzen ebanaren oso antzeko zerbait gertatzen zala hemen. Hemengo parametroak sartu ebezan, eta funtzionatzen ebala egiaztatzean, iragarpen-eredu berberak generatu ziran, normalean oso ondo funtzionatzen dabenak. Orain errazago eta zehatzago aurreikus daitekez, eta arriskuetaarako prestatuago gagoz. Galerna izateko arriskua detektatzen danean, erne gagoz, haizea aldatuko dan, ze zakartasun daukon, ze abiaduratan mobiduten

dan eta abar ikusteko, alarmak piztu ala ez jakiteko", argitu dau Jose Antonio Aranda Euskalmeteko zuzendariak.

Gaur egun, MFK abisuak Meteorologia Zerbitzu Nazionalen (SMN) funtsezko eginkizunak dira. Meteoalerta Planak Babes Zibileko Sistema Nazionalaren (SNPC) planetan jasotako jarduerak eragiten dabene informazino meteorologikoa (MFK abisuak) emoten dau.

Iragarpen meteorologikoen eta abisuen sistemen bilakaerari dagokionez, AEMET-en aurrekoak, INMk, PREVIMET izeneko fenomeno kaltegarrien lehen plan espezifikoak ezarri ebazan 8oko hamar-

kadaren hasieran (bat fenomeno bakoitzeko). 1995ean plan barri bat sortu zan, "Kontrako Fenomenoak Iragartzeko eta Zaintzeko Plan Nazionala (PNPVFA)" izenekoa. 2006an, INMk plan konplexuagoa eta anbizino handiagokoa jarri eban martxan, gizartearen eta Babes Zibileko agintari arduradunen eskakizunetara bideratua, EMMA-Meteoalarm abisu meteorologikoen Europako proiektuagaz bat etorritz.

"Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak Iragartzeko eta Zaintzeko Plan Nazionala: Meteoalerta" da. Bertan, fenómeno kaltegarritzat jotzen diran fenomenoak ezartzen dira, bai eta hauei lotutako al-

dagai meteorologikoen kantidadeak edo indarrak be, klimatologiaren ikuspegitik ezohikoak ez ezik, biztanlerian eragin larria izateko bezain kaltegarriak diranak be. Kantauri aldeko eta Galizia iparraldeko galernak Fenomeno Meteorologiko Kaltegarritzat (MFK) hartzen dira plan honen barruan.

Klima aldaketari egotzitako muturreko fenomeno meteorologiko gero eta gehiagoren perpezpinoari dagokionez, Jose Antonio Aranda Euskalmeteko zuzendariak argitu dau ez dauela zertan horrela izan behar: *"Enbata handia izateko, urak temperatura baxuan egon behar dau, gero eta gehiago korritzeko, eta klima aldaketagaz ur beroagoak izango doguz, eta hori da gertatzen ari dana. Beraz, ez dirudi aurretzean galernak areagotuko diranik, ezta ekatxak be. Biziagoak eta prezipitazino handiagoak izan daitekez".*

PAZKO ZAPATUKO ENBATA, TRAGEDIA ITSASOAN

Baina, zer gertatzen da zure bizimodua eta bizitza jokoan dagozenean? Itsasoan maniobratzeko tarte txikia dago, eta sarri irakurtzen doguz titularrak, esaterako: Eguraldi txarrak antxoaren arrantzaldia- ren hasiera atzeratzera behartzen dauz arrantzaleak, Bermeoko arrantzaleek euren flotaren zati bat Bilbora eramane dabe denborale barriaren aurrean, Euskal flota euskal portuetara itzultzen da eguraldi txarra dala eta... Bistan da, eguraldiak geure arrantzaleei eragiten deutse. Eta hemen enbatak erronka bat baino gehiago izan dira. Mugarri historikoak markatu dabez galernak, gaur egun benetako tragediak bezala gogoratuak.

Horrela esaten eban gaztelerazko esae- rak: "barco sin cubierta, sepultura abierta" (estalpe bako itsasontzia, hilobia). Histori-

Galerna tragikoenetako bat eta bizitza gehien eramane ebane "Pazko Zapatukoa" izan zan, 1878an

koki, ontzi guztiak, gure portuetako arran- tza-txalupa txikietatik hasi eta itsasontzi handietaraino, Karlos V.ekoa 1517an edo Felipe II .ekoa 1559an kasu, beldur ziran fronte kaltegarria iritsiko ote zan.

Galerna tragikoenetako bat eta bizitza gehien eramane ebane *"Pazko Zapatukoa"* izan zan, 1878an. Itsasgizonen eta denbo- ralearen arteko borroka desorekatu har- tan, 322 arrantzale, 132 kantabriar eta 190 euskaldun hil ziran.

1878ko apirilaren 20an, zapatua, goiz, ontzitzu nagusiak, txalupak eta traineruak itsasoratu ziranean, ezerk ez eban ira- gartzen ondoren zoritxarrez gertatu zana. Txalupak, traineruak eta ontzitzuak sar- dinak harrapatzera irtene ziran. Ontzi ge- hienak edegiak eta estalki bakoak ziran, eta kostaldetik 15 miliatara egiten eben arrantza. Arrantzaleek haizea boladaka ikusi eben, inguruko hondartzetatik ha- rea altxatzen zala ikustean. Eguerdian enbata bat altxatu zan bat-batean, ekatx eta ipar-mendebaldeko haize bortitzekaz. Haizearen aldaketa susmau ebenean, pa- troi batzuek bela nagusiak jaitsi eta por- turantz abiatu ziran. Beste askok lanean jarraitu eben hutsik ez bueltatzeko. Ez eben portura joateko aukerarik izan. Eka- txaren lehen erasoekaz, batzuek *"la un- ción"* izeneko bela altxatu eben popan, eta lehorrean irtene saiatu ziran, beste batzuk ekatxaren menpe geratu ziran. Kronikek eta testigantzek jasotzen ebenez, lehena- go ez zan hain itsaso zakarrik ikusi. Itsasoa eta zerua bat ziran.

Arratsaldeko lauretan, mastak galdu- tako txalupa batzuk eta merkatal-goleta ba- tzuk iritsi ziran portura, erreskatau- tako naufrago batzuekaz. Apurka-apurka, zenbait portutara hondatutako eta galdu- tako ontzien barriak heltzen ziran. Pazko

Domeka ha zorigaiztokoa izan zan gizon asko galdu ziralako. Hirurehun persona baino gehiago hil ziran, eta zendutako a- rrantzaleen artean 85 bermeotarrak ziran ta 41 elantxobetarrak, besteak beste. Tra- gedia horrek mugarri bat markatu eban nabigazinoan. Estatu osoan eragin handia izan eban tragediak aldaketak ekarri eba- zan arrantza-ontzietan. Handik aurrera, estalki jarraituak jarri ebezan. Eguraldia- ren iragarpenak be hobetu ziran eta Sal- bamendu zerbitzua garatzen hasi zan.


Familia asko lur jota itxi ebazan tragedia- ren ondorioz, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintziek eta Santanderrek lagun- tza-batzordeak ezarri ebezan kaltetuei la- guntzeko. Egunkari batzuek dirua batzeko kanpainak egin ebezan itsasoan galdu- takoen familiei eta 1.000 naufrago baino gehiagori laguntzeko.

Itsas zabalan arrantzaleen segurtasuna hobetzeko neurriak be ezarri ziran. Egu- raldi-iragarpenek be hobetu ziran, bal- dintza klimatikoei buruzko informazino zehatzagogaz. Espainiako XIX. mendeko denboralerik txarrenetako bat bezala go- goratzen da.

BERMEO ETA GALERNA

Geure kostaldean, barriro be Bermeo protagonista izanda, oso tragikoki gogo- ratzen dogu 1912ko abuztuaren 12tik 13ra gertatutakoa. Nahiz eta aditu batzuen arabera enbata bat baino hegoaldean ge- hiegi jaitsi zan denporale baten fronte- ren adarrak izan ziran, tragedia hau "Ga- lerna" bezala gogoratzen da. Garai hartan, arrantza-sektorea aldaketa sakon batean murgilduta egoan, arrauna eta bela a- tzean geratzen ari ziran, eta baporeak, trakzino mekanikoa, nagusitzen ari ziran. Halanda be, arrantza tresna tradizionalak

>>>



Euskal kostaldeko galernak historian

Galernagaz Bermeok bere gazteria galdu ebala be esaten zan. 18 eta 30 urte bitarteko 116 bermeotar hil ziran, biztanleriaren % 1

bardinak izaten jarraitzen eben. "Sociedad Libre de Pescadores" alkarteko arduraduna eta idazkaria izan zan Ramon Ojinagaren testigantza araber, uda oso txarra izaten ari zan arrantzaleentzat. Eguraldi txarra zala eta, hegaluzearen kanpaina arriskuan egoan. Kanpaina on bat egiteko itxaropenagaz, abuztuaren 9an Bermeoko 36 ontzitxu eta Ondarroako 4 atera ziran itsasora hegaluzetara. Hilaren 12an, arratsaldean, bapora-itsasoko alkatteek banderak altzau ebezan, eguraldi aldaketaren aurrean, arrantza-ontziak portura itzul eitezan. Bermeoko baporeek eta Ondarroako ontzitxu batzuek abisuari erantzun eta bueltatu egin zirn. Baina, Bermeoko ontzitxuek jarraitu egin eben harrapaketei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, enbata laster pasako zalakoan. Isilpeko katastrofea egia bihurtu zan.

Abuztuaren 14an prentsak gertatu-takoaren barri emon eban. *El Liberal* egunkariak azpimarratzen eban, "barritz be galerna madarikatuak Bermeoko arrantzale gaixoen odola inmolau dau". Bermeok bere gazteria galdu ebala be irakur eitekean. 18 eta 30 urte bitarteko 116 bermeotar hil ziran, biztanleriaren % 1. Tragediaren tamaina ezin hobeto islatzen dauen datua da, asteburu horretan herriko jaietan ospatzekoak ziran 80 ezkontzetatik 40 senargai hil egin zirala. Garai hartan hondamendietarako aurrekontu-partidarik ez egoala kontuan hartuta, dohaintzek eta alkartasun-ekintzek lagundu eutseezan familiei aurrera egiten. Galerna tragiko hark be aldaketa nabarmenak ekarri ebazan arrantza-sektorean. Kofradiak Kantauriko kostaldeko arrantzaleen segurtasunaren prekaridadearen aurka altxatu ziran, eta beharrezko pausuak emon ziran alarma eta salbamendu sistema bat ezartzeko. Hainbat behatoki meteorologiko eraikitzea jasotzen eban lege-proiektu baterako oinarriak ezarri ziran, galernak eta depresino-fronteak iristen ari zirala atzerapen barik ohartarazteko, itsasoko lanari balioa emoteko arrantza-eskolak sortzeko, arrantza-ontzitxuetan motorrak jartzeko, itsasontzi, arrantzaleentzako eta arrantza-aparailuei lotutako seguruak izateko eta salbamendu-ontzientzat babes-portuak sortzeko.

Itsasoko langileen baldintzak zertxobait hobetu ziran. Eta meteorologia zientifikoa ezinbestekoa bihurtu zan eta portu guztiak (Bizkaikoak zein Gipuzkoakoak) behar bezala komunikatuak egozenn Igeldoko behatokiagaz. Behatoki horrek, orduan, galerna kasuan alarma-seinaleak igortzen ebazan.

"Arrantzaleak, arrantzako kapitainak, itsa- soaren eta meteorologiaren menpe dagozen profesionalak dira, eta antxina ezer ez bazekiten be, gaur egun asko dakite atmosferaren eta itsasoaren baldintzei buruz. Baina beste garai batean pentsatuz gero, hodei mota, lurmutur tontorrak, goizeko haizea, tenperaturak eta abar bezalako seinaleak kontutan hartzen ebeen, eta askotan asmau egiten zan. Gaur egun, ontziek teknologia egokiak daukeez arrisku atmosferikoak detektatzeko, eta, gainera, itsasontzien arduradunek eta tripulazinoak mota guztietako iturri meteorologikoak eta itsasokoak konsultatzen dabez, baita momentuko informazinoa eskaintzen daben era guztietako aplikazino digitalak be. Izan be, garai batetik hona ez da fenomeno natural honegaz lotutako ezbeharrik izan", zehaztu dau Jose Antonio Aranda Euskalmeteko zuzendariak.

Gaur egun, Bermeok abuztuaren 12-13an jarraitzen dau tragedia izugarri ha gogoratzen, lore-eskaintza eta omenaldiekaz.



Badatoz! Eskultura multzoa, Torrontero plazan, Bermeo

Gainera, Badatoz! izeneko eskultura multzoa, Torrontero plazan, 2004an Enrique Zubia eskultore bermeotarrak egin, 1912ko abuztuaren 12an bizi izandako izugarrikeria begiztatzan dagoen familia bat erakusten dau. Bermeoko portutik itsasoari begira dagoen pertsonaia desbardinak dagoz: arrantzale baten emaztea, bere bi seme-alabak, bere aita (aitita), eta aititaren ondoan eserita dagoen amama, ahoa estaltzen dauena beldurrraren keinu batean.

Zoritxarrez, tragedia hori, bertoko XX. mendeko lan-istripurik larriena izan zala uste dan arren, ez zan gertaera isolatua izan. Kantauri itsasoan gogoratzen dan beste galerna bat 1961eko uztailaren 12an gertatu zan, eta bereziki Gipuzkoako kostaldean izan eban eragina. Barriro be, aurreikuspenak labur geratu ziran, eta hegaluzearen harrapaketan gau bake-

tsua izango zana infernu bihurtu zan. Termometroek egun beroa izan zanaren datuak batu ebezen: 24° Coruña, 30° Sondikan edo 26° Igeldoko itsasargian. Halanda be, udako gau lasaia bat-batean zorabiozko abiadurara iritsi ziran haizeekin zapuztu zan. Temperatura 9 gradu jaitsi zan eta itsasontziak gobernaezinak bihurtu ziran itsasoan. Ziklogenesi lehergarria zan, aurrez aurreko galerna beldurgarria, eta barriro galdu ziran ontziak eta arrantzaleak.

Erregistrautako azken galerna 1987ko ekainaren 7an gertatu zan, eta zortzi persona hil ziran (ez ziran arrantzaleak), hainbat zauritu eta bi haur desagertu ziran. Lehenago, 1588an, antza danez, Armada Garaiezina bera galerna batek murriztu eban borrokatik bueltatzen ari zanean.

UM

Iturriak:

"La Galerna del Cantábrico"- AEMET-eko blog-a. El diario vasco. AEMET. Euskalmet



Arabako Errioxa naiz

Eta nire etiketan esanda dago dena.

Nire jatorriaz hitz egiten duelako, kalitate berdingabeaz, esperientziatzaz, berrikuntzaz.

Saltoki eta jatetxeetan arretaz begiratu etiketari; Arabako Errioxa jarri behar du.



Soy Rioja Alavesa

Y mi etiqueta lo dice todo.

Porque habla de mi origen, de una calidad única, de experiencia, de innovación.

Fíjate en comercios y restaurantes que en la etiqueta ponga Rioja Alavesa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

hazi

Kontsumo arduratsua.
Consumo responsable.



ARRATZUKO
UDALA

LEHEN SEKTOREARI APLIKAUTAKO BARRIKUNTZA

Arratzuko Udalak, agorraldian ureztatze-arazoari irtenbide tekniko iraunkorra emoteko bidean aurrera egiteagaz batera, tokiko nekazaritza-ekoizpenari balio erantsia emoteko proiektuari ekin deutso barriro, bereziki kiwia, kalabaza eta beste produktu tradizional batzuk (porrua, esaterako) ekoizteari lotuta. Proiektuaren lehen fasean, Bilboko Ostalaritza Goi Eskolagazeta Urremendi LGEagaz lankidetzan, hainbat produktu esperimental asmau, ikertu, garatu, probau ebezan eta produktuen ziurtapen prozesua egin eban, esaterako kiwi snak-ak, Arratzuko izozkia, Gernikako piper ongailua edo kiwi-krema. Orain, erreferentzia horreek hobetu gura dira, eta, horreetatik abiatuta, merkatu gastronomikoaren bilakaerara eta banaketa-kanal barrietara egokitutako negozio-ildo barriak planteatzea da asmoa. Horrela, tokiko produktuez sasotik kanpo gozatzeko aukera emoteko, kalidade eta osasun berme guztiagaz, nekazaritza-ekoizpena eskala handiagoan bultzatzeko eta landa-inguru-nearen iraunkortasun ekonomikoan laguntzeko oinarri lez.



BUSTURIKO
UDALA

"EMAN TA ZABAL ZAZU" ITXAROPENA ETA ASKATASUNA

Strašnice (Praga) errausketa-labeko administratzaile ausera izan zan František Suchý, 1945ean fusilautako Anjel Lekuona busturitarraren oroimena, Hradištko konzentrazio-no-esparruan preso egondakoa eta harekin batera eraildako beste deportatu batzuen oroimena izan dira Pragan Busturia eta Hradištko senidetutako udalerrietako udaletako ordezkariak eta senide ta memoria historikoaren ikertzaileek burututako omenaldiaren oinarria. Helburua izan da haien ausardia, sufrimendua eta duintasuna aitortzea. Konpromiso horren sinbolo lez, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zan, Euskal Askatasunen ikur, itxaropena sustraituz eta Busturia eta Hradištko-ren artean proiektuak bateratzeko konpromisoari bizitasuna emonez. Ekitaldi horrek memoriarako, alkartasunerako eta bakearekiko konpromisorako itun bat borobiltzen dau, oroimenaren bidez alkartuta etorkizun hobea eraikitzeko komunitadeen arteko bizikidetzara iraunkorra lortzeko aukera loratuz. Hori guztia posible da ikertzaileen lan nekazariari esker, egia bilatzeari itxi ez deustoenen ekintasunari esker eta oroimena bizirik mantentzen daben familien kemenari esker.



ERRIGOITIKO

UDALA

LANDA ESTALDURA DIGITALAREN ERRONKA

Errigoitiko Udalak, udalerriko bizi-kalidadea hobetzeko egiten dauzen gestinoen artean, herriko auzoetan estaldura digital handiagoa emotea dauko helburu. Izan be, Internetarako ia konexinorik ez daukeen gunek dagoz eta beharizan bat da. Konexino-arazo handienetako bat Mexikas auzoan dago. Hori konpontzeko, beharrezkoa da Telekomunikazio Zerbitzuen Oinarrizko Estazio bat instalatzeko baldintzak betetzen dauzen lursail bat izatea. Udalak ez dauko ezaugarri horreek betetzen dabizen udal-lurrik, eta, horregaitik, auzotarren laguntza eskatzen dau lursailak prestatzeko. Instalazioaz arduratzen dan enpresaren jarraibideei jarraituz, beharrezkoa da 80m²-ko azalera bat, errepidetik gertu egon behar dauena eta zuntz optikoaren hornidura izan behar dauena. Enpresa instalatzaileak baieztatu dau estazio horreek ez dabela arazorik sortzen, ez zaratarik, ez aparatu elektronikoetan trabarik eragiten, eta lurzorua alokairu-erregimenean eskaintzen dala.



FORUKO

UDALA

ARGITERIA PUBLIKO JASANGARRIA

Udalerriko energia-eraginkortasuna hobetzeko, atmosfera egiten diran CO₂en emisinoak murrizteko eta argi-kutsadura gutxitzeko, Foruko Udalak argiteria publikoa barritzen jarraitzen dau. Jarduketa horrek kalidadezko eta segurtasun handiagoko zerbitzuak bermatu gura dauz bizilagun guztientzat, eta, orain, udalerraren erdigunera zabaltzen da, zehazki, udaletxearen eta Tourseko San Martin eleizaren arteko eremura. Gainera, aurtun lineak ordeztan jarraituko da. Auzoetako bizi-kalidadea erdiguneko bezain garrantzitsua da gobernu-taldearentzat, eta % 100ean eusten deutsu herri osoan argiztapena hobetzeko konpromisoari. Helburua da eraginkortasun energetikoa, segurtasuna eta ongizatea hobetzea bizilagunentzat eta bisitarientzat. Jarduketa honetan, instalazio osoa barritatu da eta argi zahar eta hondatuak energia gehiago aurrezten daben eta argitasun hobea emoten daben beste batzuekin ordeztu dira. Inbersinoan 43.306,99 eurokoa izan da.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

ERABILERA ASKOTAKO GUNE BARRIA FRONTOIAN

Gauteigiz Arteagako Udalak, herriko frontoia dinamizatzeko estrategian, bere zerbitzuak hobetzeko lanean jarraitzen dau. Asmoa da kirol-espazio balioaniztun eta irisgarria izatea, erabiltzaileei esperientzia optimoa eskaintzeko eta herriari gero eta azpiegitura eraginkorragoa eskaintzeko. Eguzki-panelak jartzeaz gain aldagelak hobetzeko obrak esleitu barri dira frontoian, erabilera anitzeko kirolgune funtzional, irisgarri eta jarduera soziokulturaletarako eta aisialdiko jardueretarako egokitu daitekeen gunea, hain zuzen be. Frontoian egingo dan hobekuntza horrek espazioak hobeto aprobetxatzea be bilatzen dau, eta 2025erako udalaren aurrekontuaren inbersino garrantzitsuenetako bat da, 131.805,60 euro, BEZa barne. Obrak egiteko epea lau hilabetekoa da. Ekimen hau azken urteetan frontoia hobetzeko eta dinamizatzeko egindako beste ekimen batzuei gehitu behar da; esate baterako, segurtasun-sare bat jartzea, udal-app-aren bidez online erreserba egiteko aukera edo frontoira sartzeko txartel pertsonalizatuak banatzea.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

BAKEAREN MEDITERRANEO SARIA

Munduko Estatu Batuek, gizarte-bidebakokeriei eta gerreirei aurre egitea helburu daukon nazioarteko erakundeak, Bakearen Mediterraneo Sariaren edizino berezia eta apartekoa emon deutsu Gernika-Lumori, Bakearen Nobel sariaren ostean nazioarteko sari esanguratsuena da. Saria urtero banatzen da, Jordaniako Rania erreginak edo Barack Obamak AEBetako presidente ohiak jaso eban, baina edizino berezi barri honek Gernika-Lumoko herritar guztiak "Munduko Estatu Batuetako Bakearen Abanderatu" bihurtzen dauz. Hemendik aurrera, eta hogeita hamar urtetik behin, sari mota barri hau "munduko hiri martiri bati" emongo jako. Gernika-Lumoko alkateak herritar guztien izenean jaso dau sari hori, eta, bereziki, Crucita Etxabe eta Mari Carmen Agirre bonbardaketaren lekuko izan ziran herritarrak lehen Bakearen Abanderatuak izendau dabaz. Gernika-Lumo ekainaren 7an Napolin egingo dan nazioarteko ekitaldi handian parte hartzera konbidau dabaz. Bertan, 'Bakearen Totem' erraldoia Frantzisko aita santuari eskainiko jako.



IBARRANGELUKO

UDALA

SKATE PARK: GAZTEENTZAKO EKIPAMENDU BARRIA

Ibarrangeluko Udalak datozen hilabeteetan skate park pista bat zabalduko dau. Kirol-aisialdiko zerbitzu barria frontoi barriaren inguruan eraikiko da, 150 metro koadro inguruko neurriekaz, eta haurrei eta gazteei aisialdirako aukera barri bat emongo deutse. Maldak egiteko indusketak dagoeneko egin dira, eta moduluak eraikuntza-fasean dagoz. Proiektuak 40.000 €-ko aurrekontua dauko, eta hori finantzatzeko, Udalak Eusko Jaurlaritzaren landa-eremuak sustatu eta garatzera bideratutako EREIN laguntza-programara aurkeztu dau ekimena. Kirol-instalazino barri honek kalidadezko standard handiko gainazala izango dau, material jasangarriz egindakoa, paper prentsatzuz osatua, aire zabalean erabiltzeko egokia eta iraunkorra, patineteen erroberen kolpeak jasateko gai. Beste ezaugarrietako bat da intsonorizautako moduluek osatzen dabela eta ez dala instalazino iraunkorra, behar izanez gero, lekuz alda daiteke eta.



KORTEZUBIKO

UDALA

HERRIKO TABERNA BARRIRO ZABALIK

Kortezubiko Herriko Tabernak ateak zabaldu dauz barriro, denboraldi labur batez zerbitzu barik egon ondoren. Udalak Kortezubiko bikote baten esku utzi dau establezimenduaren kudeaketa, eta hauek tabernari herriko tabernaren funtsa barriro emotea erabaki dabe. Gertuko giro atsegina, aisialdiaz gozatzeko, gastronomia xume eta gozoaz gozaten dan bitartean. Bertan, haurrek eta helduek hainbat aukera izango dabez. Ogitarakoak, sandwichak, hanburgesak, plater konbinaduak eta plater bereziak, esaterako "Txerri-ukondo menua". Familian eta koadrilan batzeko eta, adibidez, Athletic Clubeko futbol partiduez gozatzeko leku aproposa. Establezimendua Enderika auzoan dago, udaletxearen eta Kultur Etxearen eraikin berean, Herriko Plazaren ondoan. Bertan frontoia, saskibaloia-kantxa eta haurrentzako parke bat dagoz. Aparkaleku zabal eta hurbilak, gainera, Kortezubiko Herriko Taberna barria bisitatzea errazten dau.



MURUETAKO

UDALA

MURUETAK UDAL LOKAL BAT IRABAZI DAU

Muruetako Udalak, udal-espazio egoki eta irisgarrien beharrianak asetzeko konponbideak bilatuz, 150 metro karratuko lokal barri bat kudeatu dau. Lokala irisgarria da, ibilgailuentzako sarrera dauko eta Goierrria auzoan udal-biltegi moduan erabiliko da. Izan be, udal-materialak hobeto biltegitratzeko beharrezkoa da. Udalak eta Goierrri Aurre Murueta Soziedade Kooperatiboak prezio tasatuko 4 etxebizitza sozial barri eraikitzeke eratutako lagapen-akordio baten bidez lortu da espazio hau. Udalak partzela laga eban etxebizitzak eraikitzeke eta ordainetan Goierrri Kooperatibak lokal zabala emon eutson. Orain arte Flores Etxeko Bolatokia erabiltzen zan udal biltegi moduan, eta lokal horrek ez ebazan betetzen Udalaren beharrianak. Espazio barriak, zabalagoa eta irisgarriagoa izateaz gain, instalazino hobek dauko, metalezko ate erasgarri motorizatua dauko, urrutiko aginteagaz eta oinezkoentzako ateagaz. Aurreikusitako beste erabilera batzuen artean, udal-ibilgailuak gorde eta udal-materiala biltegitratu ahal izango da.

ARROLAKO

LAGUNE

INDIGENA BIZITZA URDAIBAIN

orain 2300urte

ARROLAKO OPPIDUM-AREN INTERPRETAZIO ZENTROA

ORDUTEGIA / Horario

Igandeetan / Domingos 10:00 - 14:00

Loiola Auzoa 4,
Arratzu (Bizkaia)

Udako hilabeteetan Ibilbide Historikoen (BFA) parte da.

En los meses de verano forma parte de las visitas: Itinerarios Históricos (DFB).



% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus



Sukaldi
JATETXEA
by IÑIGO VELO
MURUETA | 946 31 38 40



GERNIKA RUGBY TALDEA
609 96 56 23
gernikart@gmail.com



Amurrio Bitxitegia
S. Roke, 3 Gernika-Lumo
94 625 09 28
amurriovelez@gmail.com



1000 klorau
Taberna - Jatetxe
Plaza San Juan Ibarra, s/n
48300 Gernika-Lumo
94 625 76 19 / 628 548 572
f @



CHARCUTERIA - URDAITEGIA
PEPI
"CHARCUTERIA SELECTA"
ESPECIALIDAD EN PRODUCTOS IBÉRICOS
1994-2024
30 años JUNTOS
Plaza del Mercado, P-7
Telf.: 608 001 428
charcuteriapepi@gmail.com
GERNIKA f @



SAN ISIDRO
Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkarteak
Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube
48300 Gernika-Lumo
Tel. 94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com
www.kooperatibasanisidrogernika.com f @



EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA
EUSKAL SOUVENIRS
Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com
f @
[@euskalsouvenirs](https://www.euskalsouvenirs.com)




L&K
TRANSPORTE,
LOGÍSTICA ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...
Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)
Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



AUZOKOA
TABERNA
Arcoiris de sabores
Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66

f @

Arrien Optika 
Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es

Hatx eta harkaitzak

Itsasoarekiko muga

Busturialdeak Kantauri itsasoagaz daukon muga markatzen eta itxuratzen dabenelementu geografiko nagusiak oso ezagunak dira: Matxitxako eta Ogoño lurmuturrak, Izaro isla edo Matxitxakoko senaia. Baina koloso hauen oinetan gorabehera txikien uniberso bat zabaltzen da, geure itsas paisaiaren hatx eta harkaitzez osatutako hesia.



Potorro arri eta bere ohiko bisitariak

Busturialdeko itsasertza itsaso zabalari begira dago Gaztelugatxetik, mendebaldean eta Eako kostaldearen mugetaraino, ekialdean. Kostaldea, malkartsua eta ederra da, eta ia erdian defentsak bajatzen dauz itsasadarraren estuarioari, hareatzei eta barrualdeko padurei bidea emoteko.

Kostaldeko hatx txikiak funtsezkoak dira Urdaibaiko itsasertza dan maisulan konplexu eta askotarikoan. Harkaitza eta itsasoaren arteko alkargune apartekoan, bizirik atera ziran hondakin mineral herrikoak dira. Marearen mailak, itsasoaren egoerak eta azken honen itxura desbardinak, – behaketa-angelu bakoitzetik aldatzen da – paisaia familiarra eta desbardina sortzen dabe, sentimen eta sensazioetan, kostaldetik eta itsasotik. Kostaldetik, hatx apartsu hauek edertasun basatiaren parte dira, abenturarako eta ametsetarako gonbidapena; itsasotik, kostaldeko lehen lerroa dira, nabigatzaileentzako paisaia ezaguna, arrantzaleen ohiko erreferentzia, eta, askotan, itsasgorarik garaienetan

beren ertzak ezkutatzen dabezen baixa beldurgarriak.

Busturialdeko itsasoaren mugak markatzen dabezen bi puntuen arteko kostaldea jarraituz gero: Gastelugatxe eta Bedarona magalak, itsasertzera aurreratzen dan arroka, hatx eta harkaitzen errosarioa olatuen artean azaleratzen da. Hauek, antxinako izenen eramaile dira, beste garai batzuetako oihartzunak. Antxinako itsasgizonek euren kostaldeko ezaugarri bereizgarriak eta lasaigarriak ikusten ebezen garaikoak, hain zuzen be.

Bidaia hau Gaztelugatxeko biotopo babestuan hasiko dogu, Bermeon; Aketx uhartetxoaren parean, Erradurea, Erdikoplantsea edo Potorro Atxa izeneko hatxak dagoz. Matxitxako lurmuturraren bueltan eta Euskadiko iparralderago dagoen kostaldearen muturraren parean, Matxitxakoko harlauzak aurreratzen dira. Harlauza handi horreen gainean olatuak irratzen dira, eta ekialdean, mendebaldeko haize nagusitik babestuta, Matxitxakoko

Harrizko masa itzel hauek misio sekularra betetzen dabe, transformatzaile fisiko handiak dira eta potentzial biologiko izugarriko gordelekuak

senai handia ikusten da, bere ertzetan Arribolaseko harri-koskor handien pilaketa bitxia hartzen dauena. Bermeora hurbildu ahala, Ugerraitz uharteko zetazeo harritzatuaren bizkar handiaren forma bitxia agertzen da, eta Tala azpian, Salbeatz eta Laisoas izeneko hatxak olatu-hormaren aurrean altzau egiten dira. Ber-



Ugarrai, Bermeo

Arroka, hatx eta harkaitzen errosarioa olatuen artean azaleratzen da, antxinako izenen eramailea, beste garai batzuetako oihartzunak. Antxinako itsasgizonek euren kostaldeko ezagurri ezagunak ikusten ebezen garaikoak

meoko portua pasa ta gero, Mundakako kostaldea hegoaldera begira dago, eta Burgoa uhartetxoa, Ondartzapeko kala la-saiaren hatxak eta Barrako hatxak dagoz. Itsaso zabalera begiratzean, Izaro islaren silueta luzangera, Mendebaldeko mutur-rean, "Atxikote Puntie" hatxen errosarioa agertzen jaku. Hegoaldean, itsasbeheran, Izaroko marearteko zabalgunek handia azaleratzen da, "Plantxadie edo plantxie". Iparraldean, itsasertzetik behatzailearentzat ezkutatuta, eta itsasoaren aurrean dagoen azken aztarna tinkoa lez, arrantzaleen eta arrantzazaleen artean ezaguna dan hatx enblematikoa dago: Potorro arri. Silueta berezikoa, sarritan inguru hauetako ohiko batek koroatua: ubarroia, pitorroa edo potorroa. Oso normala izaten da hatx honen gainean ubarroia/potorroa ikustea, hori dala eta, inguruko hatx hau eta kostaldeko beste batzuk izen horregaz ezagutzen dira.

Irlaren oinetan, Barru-Atxeko harkaitz handia zabaltzen da. Potorro arriren ahiztak Izarotik ekialdera dagoz, adibidez Potorro arri txiki. Hau garai batean Izaro eta kostaldea lotzen ebazan antxinako ezponda naturalaren zati bat zan. Hau apurka-apurka apurtu da itsasoagaz borrokan eta Otxarri bezalako baixa arriskutsuen sorburua da. Azken hau, hatx multzo nabar bat da eta itsasgoran estalita geratzen da. Antzorako kostaldetik oso gertu, marea-erdietako uretan kikilduta, Atxa kondenatua, Lemajjale, Lemajalie edo Lemaxalia, "*Rompetimones*" izenez ezagunak, nabigazinoagaz daukeen harreman gorabeheratsuen adierazle. Ekialderantz jarraituaz, Laga hondartzaraino helduko gara. Lagako eta Txoriatxako hatxek babesten dabe alboetatik eta Ogoñoko harkaitz handiak bereizten dau Elantxobetik. Ogoñok herri honetako portua babesten dau ekialdetik. Kanpotik, Kurtzeko Atxako arrokek, olatu-horma babesten dabe.

Busturialdeko ekialdeko kostaldea, Ean jada, edertasun basatikoa da eta hatxez ziprztinduta dago: Abadeatxa, Belarriondo, Arrizapala, Malukatxak, Malukatxaaurrekoak, Erremuatxak, Atekarrik eta Kaia-riako hatx handiak eszenatoki ikusgarria sortzen dabe, itsaso eta lur artean eztabaidan. Baina harrizko masa itzel hauek misio sekularra betetzen dabe, eta euren balio estetiko kalkulaezinatik harago, transformatzaile fisiko handiak dira, eta potentzial biologiko izugarriko gordelekuak dira. Olatuak, hatxaren kontra apurtuta, turbulentziak, korronteak eta espezie desbardinak erakartzen dabezen aldaketa txiki asko sortzen dau. Batzuek gainazal harritsua erabiltzen dabe bizileku eta babesleku moduan, eta beste batzuek, barriz, bertan bilatzen dabe janaria eta beren baldintza berezien aprobetxamendua.

Busturialdeko kostalde ikusgarria ezagutzeko modu desbardin eta originala da hatx eta harkaitz dibersidade bitxi hori barnealdetik edo itsasotik jarraitzea. **UM**

Hatx hauek izendatzeko moduak askotarikoak izaten da: gertuko portuetako arrantzaleek emondako izen herrikoiak, karta nautikoak eta mapa toponimikoetan agertutakoak. Erabilitako iturriak honako hauek izan dira: Bermeo eta bere inguruan: Pedro de Anasagastiren Historia General de la Villa de Bermeo. Izaro eta bere inguruan: Anton Erkorekaren Izaro, Historia y Tradiciones. Gaztelugatxe ingururako, Geo Euskadiko mapa toponimikoa. Eta Earako, Eako mapa toponimikoa.

Gogoratu berriro gerta ez dadin

ANTON GANDARIAS LEKUONA, Angel Lekuona Beitia deportatuaren iloba eta Busturiako Memoria Historikoaren Batzordeko kidea

Gernika-Lumo 2024ko apirilean izendatu zuten memoriaren leku. Gernika-Lumon jaio, hazi eta bizi izan garenok oso barneratuta daukagu memoria sentimendu hori. Gogoratu, gure seme-alabei helarazi bonbardaketak zer esan nahi izan zuen, frankismo garaian gure gurasoek gurekin egin zuten bezala, nahiz eta jakin botere frankistaren mekanismoetatik gezur handia kontatzen jarraitzen zutela, Gernika-Lumo gudariak eta artezilari asturiarrek suntsitu zutenaren falazia.

Baina asmatutako kontakizun hori, gezur baldar hori ez zen mamitu foru-hiribilduko herritarren artean. Alemaniako gobernuak hirurogei urte behar izan zituen aitortzeko Kondor Legioa izan zela gure herria suntsitu zuena. 1997ko apirilean, bonbardaketa gertatu eta 60 urtera, Roman Herzog kantziler alemaniarrek bere gain hartu zuen, bere herrialdearen izenean, 1937ko apirilaren 26ko aire erasoaren erantzukizuna. Herzogek "hegazkin alemaniarren errua" aitortu zuen eta barkamena eskatu zion Gernika Lumoko herriari. Hala ere, Espainiako Gobernuak 2022an egin zuen lehen aldiz, "Gernikako bonbardaketa espresuki gaitzetsi zuenean", bonbardaketaren 85. urteurrenaren harira egindako adierazpen instituzional batean. 85 urte itxaron behar izan ditugu, 85 aldiz pasa behar izan zen apirilaren

26a Espainiako gobernuak egia handi bat zena onartzeko, mundu guztiak zekiena, eta urte horietan guztietan, 85 urte luze horietan, gogoratu dugu, urtez urte, gure hildakoak eta desagertuak.

George Santayana filosofoaren esaldi batek honela dio Auschwitz Birkenauko kontzentrazio-esparruko laugarren blokearen sarreran: "Iragana gogoratu ezin dutenek errepikatu egin behar dute". Ez dezagun utzi hori gertatzen.

2025. urte honetan 80 urte bete dira eremu naziak askatu zirenetik eta bigarren Mundu Gerraren amaieratik, eta kontzentrazio eta sarraski esparru horien zigorra jasan zuten 250 euskaldun inguru ere gogora ekarri nahi ditut. Busturialdean ere izan ziren nazien kontzentrazio-esparruen zigorra jasan zuten pertsonak. Etxahun Galparosoror historialariak Gogora instituturako egindako txostenaren arabera, Luis Fernández Ruiz, Dachau-n bizirik atera zena, Luis de Castro, Sankt Georgen Bayreuth-eko espetxean desagertua, biak Gernika Lumokoak, Pedro Mada-riaga Recalde, bermeotarra eta Dachau-ko biziraulea eta Angel Lekuona Beitia, busturiarra, Flossenburgekoaren menpeko Hradištoko azpierzun eraila, zerrenda horren parte dira. Angel Lekuona Beitia, Busturiako memoria historikoaren batzordearen lanari esker,

bere jaioterrian, Busturian, eta Txekiar Errepublikako Hradištoko herrian, berriki Busturiarekin senidetua, du gaur egun behar bezalako errekonozimendua.

Eta ispilu honetan begiratu behar dugu. Berriro gerta ez dadin, gure herrien, gure arbasoen historia berreskuratzea, mikrohistoriak. Aurkikuntza txiki horiek aukera ematen dute beste mikrohistoria batzuekin konektatzeko, sare batean, beste batzuekin konektatzeko, gure luparekin iragana aztertzeke eta, batzuetan, kasu apartak aurkitzeke (niri Angel Lekuonarekin gertatu zait). Eskura ditugun tresnak oso ugariak dira. Milaka artxibo digitalizatuk lagunduko digute informazio hori bilatzen eta aurkitzen, eta beste aurkikuntza batzuekin lotzen. Ez gaitezen erori sare sozialetan kontatzen diguten guztia sinesteko tranpan, joka dezagun irizpidez, zorrotasunez, informazio guztiak kontrastatuz.

Ez dago desinformazioa baino etsai okerragorik, eta kontuz ibili erregimen autoritarioen gorakadarekin, demokratizat jotzen baitira, komunikabideak menderatu nahi baitituzte. Hobbese, El Leviatán liburuan, esaldi famatu hau idatzi zuen: "nork du informazioa, nork du boterea". Eta horretan dabilta orain mundua menderatzen duten asko. **■**



Fernando G. Baptista Arrolako *oppidum*-ean informazinoa batzen bere ilustrazinarako

Fernando G. Baptista

Busturialdea munduko diseinatzaile onenaren obran

Orain dala hilabete batzuetatik aurrerago prestanta geneukan alkarrizketa hau oso une berezian gauzatzen da. Fernando Gómez Baptista bilbotarra, Busturialdeko ondare-baliabideen ilustrazino askoren egilea, munduko diseinatzaile onena izentau barri dau *Society For News Design*-ek. 2012an, azken 20 urteetan munduan eragin handiena izan daben bost infografistetako bat izentau eben. 2013an *Emmy* baterako izentau eben *Walking With Giants* lanagaitik, "New Approaches: Arts, Lifestyle, Culture" kategorian.

FERNANDO GÓMEZ BAPTISTA

National Geographic-eko infografiako editore seniorra (Washington, D.C.)

Artistikoki, Busturialdera etorri zan bilbotar bat zarala esan daikegu. 2007tik, plazera izan da eskualdeko ondareari buruzko dibulgazino-panelak sortzeko zure laguntza izatea. Portuondoko erro-matar portugaz hasi ginan eta, hortik aurrera, beste proiektu batzuk etorri ziran, esaterako Santimamiñe, Ereñozar eta, barriena, Arrolako *oppidum*. Halanda be, lehenago be egin zenduan lanen bat geure eskualdean.

Egunkarian Urbietaren ontzi-hondarrari buruzko artikulu bat egin genduan, eta horretarako egin neban ilustrazinoa. Geroago, ontzi-hondarraren hondakinak Bilboko Arkeologia Museora eraman ebezenean, artikulua eta ilustrazinoa gogoratu ebezan, eta han gauza bat egitea proposatu eustazan. Gero, Portuondoko birsorkuntza egin genduan, zuk aipatzen dozuna, niretzat nire gogokoenetako bat.

Zelan jaso dozu munduko diseinatzaile onenaren azken errekonozimentu hori? Erabateko ezustekoa izan da, egia esan. Ez neban espero. Bakotxak betikoa egi-ten jarraitzen dau, aldaketa handi barik

eta jendeari gustatzen jarraitzea eta epai-mahai batean 40 persona baino gehiago horrelako zerbaitegaz ados jartzea harri-garria da eta asko eskertzen da

Hasieratan argi zeneukan zertan arituko zinela? Zelakoa izan zan ilustratzaile lanagaz izan zendun lehen kontaktua?

Nik Arte Ederrak ikasi nebazan Euskal Herriko Unibersidadean. Nire asmoa irakasle izatea zan, klaseak emotea gustatzen jatalako. Gaztetan eskolak emoten nebazan Begoñako lokal sozial batean. Baina argi-taletxe garrantzitsu baterako ilustratzaile bat behar zala zioen iragarki bat atera zan, El Correo, hautatu ninduezan eta norabidea aldatu neban. Infografiagaz hasi nintzan eta hor harrapauta geratu nintzan. Bitxia bada be, azken urteotan ilustrazino zientifikoko eskolak emoten ari naz Euskal Herriko Unibersidadeko master batean. Irakaskuntza gustatzen jat oraindik.

Zelakoa zan garai hartan ilustratzaile lez lan egitea?

3 edo 4 urtez lan egin neban *freelance* moduan. Oso ondo etorri jatan, deneta-

rik egin nebalako: muralak, antzerkirako dekoratuak... ez zan asko ordaintzen, eta hurrengo hilabetean lanik izango ote zenduan zalantzas bizitzen zinan.

Ilustrazinoa, infografia. Zein da lotura?

Infografia, beharbada, ilustrazinoa baino apur bat konplejuagoa da. Infografian historia bisual bat kontau behar dozu, bai papererako bai euskarri digitalerako diseinu eta ilustrazino osagai bat izan behar dauena. Kazetaritzaren, diseinuaren eta ilustrazinoaren arteko oreka islatzen dau infografiak.

Zelakoa da zure sortze-prozesua?

Proiektu bakoitzean ikertzaile bategaz egiten dot lan, eta proiektuaren arabera, talde batzuekaz edo talde handi bategaz. Nire lanaren eta informazinoaren arteko lotura dira. Fase honek denbora asko behar daike "grafiko" handi bat bada. Adibidez, igaz, *Notre Dame*ko bat egin nebanean, katedralera joan nintzan eta zaharbarritze proiektuaren arkitekto buruagaz eta bere taldeagaz egon nintzan. Ordu asko izan ziran researcher egiteko, alderatzeko, alderdi asko ezagutzeko, adibidez, ezagutzeko mortairua zelan egi-ten zan garai hartan.

Guztia islatzeak prozesu zaila izan behar dau.

Askotan hainbat informazino dozu eta aukeratu egin behar da. Arreta zertan jarri erabaki behar da. Ikasleekaz eskolak emoten dodazenean, galdetzen deustete, zelan erabakitzen dodan. Nik esaten deutset zerbaitean zentratu behar zarala eta kontau gura dozun horretan sakondu behar dala, eta beti saiatu behar dala informazino barria bilatzen.

Zelan iristen da irakasle bokazinoa daukon diseinatzaile bilbotar bat Washingtongo *National Geographic*-eko infografiako editore seniorra izatera?

Modu bitxian, egunkarian lan egiten nebanean grafikoen zuzendari gisa, atal txiki bat zala. Arratsalde batean, 2006an, gaztelaniaz berba egiten eban persona batek Estatu Batuetatik deitu eustan, *National*



Landa-lana Juan José Cepeda indusketa-zuzendariagaz, Arrolako oppidum-aren interpretazino-mahaia sortzeko

Geographic-ekoa zala esanez. Nik ezin sinetsita esan neutson, ertz horikoa? Baiez-tatu eustan eta esan eban nire egunkari-ko lanak ikusi ebazala eta uste ebal nire estiloa oso ondo konekta eitekeela aldiz-kariagaz eta infografia atal barriategaz National Geographic-en, Dream Team-en, ametsetako ekipoan, eta munduan zehar infografista bila ebiltzala. Esan neutson ez nebala ingelesez berba egiten. Erantzun eutan ez zala arazoa, porfolioa bidaltzea. Biharamonean, asko gustatu jakezala erantzun eustan, eta Washingtonerako bidaia ordaintzen eustezala. National Geographic-eko zuzendaritzak ezagutu gura ninduala eta baita zelan lan egiten eben ikus naian be. Eskaintza ekonomikoa egin eustazan eta joan egin nintzan. Kontu handiz ibili nintzan, pentsatuz ni, hirugarren erregionalekoa, lehen mailan jokatzera pasatuko nintzala. Egunkarian 2 urteko eszedentzia hartu neban, hemen egite-

ko gauza asko egozela ikusten nebalako. Proiektuak gero eta handiagoak ziran, enpresak gero eta konfiantza handiagoa eukan nigan. Beraz, hiru urteren ondoren, hara eta hona ibili ondoren eta nire emaztea, irakaslea zala, oporretan hona etorri, maletak egin ebazan egun batean, eta 17 urte eta erdi daramatzagu hemen.

Zelakoa da National Geographic-en aurkitu dozun lan estiloa?

Egunkariko lana etapa zoragarria izan zan, laguntza handia emon eustazan. Baina gehiena eguneroko lana zan, egun bat edo bi zenduzan, eta zorte handia bazen-duan, astebete proiektu berezi baterako. Hemen, barriz, hainbat baliabide izan daitezuz, eta baliabide asko. Guneetara joan zaitekez talde bategaz, ikertzaile bategaz, adituek harremanetan jarri dokumentatzeko... Horrela, kalidade-estandarra ezin da hurrengo egunean argitaratuko

Munduko diseinatzailerik onena izentau barri dau Society For News Design-ek

dozun zerbaiten bardina izan. Hemen oso altua da eta erronka bat izan zan. Hasieran ez nintzan denetara heltzen, hizkuntza ikasi behar izan neban eta non sartu nintzan galdetzen neutson neure buruari. Apurka apurka, teknika be hobetzen joan nintzan. Izan be, denbora gehiago izanda, zenbat hobeto egin daikedazan grafikoak pentsau neban. Asko ikasi neban eta lan asko egin neban be bai.

Munduko ilustratzaile onena zarelaren notiziagaz hasi dogu alkarriztea, baina lehen be sari garrantzitsuak jaso zenduzan. Ze eragina daukee errekonozimentu horreek?

Batzuetan zalantzan jartzen dozu egiten dozuna ondo dagoen ala ez, eta inork ezer esaten ez dauenean, kosta egiten da jakitea. Baina lana errekonozitzen deusue-nean, sari bat emoten deusue-nean edo egiten dozuna oso ondo dagoela esaten

deusue-nean, horrek energia eta segurtasun bultzada handia emoten deus. Maila pertsonalean motibatzen zaitue, eta gune profesionalean pisu handiagoa izatea eragiten dabe.

Zelan aukeritzen dozuz gaiak?

Batzuetan istorio bat emoten deuste, beste batzuetan gustatzen jatazan gaiak proposatzen dodaz, eta batzuetan gaiak

be sortzen dira. Lehenengoa, ideia da, eta, gero, ze kontau gura dan erabakitzea. Ia azkena hasi nintzan, eta hizkuntzaren handicap-agaz, proiektu normalekaz, eta apurka apurka proiektu handiagoak emon eustazan. Orain gai berezi bat planteatzen da, esaterako Notre Dame-koa, eta automatikoki pentsatzen dabe, Fernandoren-tzat. Orain Egiptoko piramideei buruzko proiektu bat lantzen hasi naz.



Arrolako oppidumaren interpretazino mahaiairen zirriborroa



Arrolako oppidum-aren interpretazino-mahaia bukatuta

Seguruenik, zu zagozelako planteatzen dabez proiektu batzuk, eta zuk egin daitezula uste dabe.

Bai, hasieran gai batzuk ez dira oso handiak, baina gero, Familia Santuaren kasuan bezala, lau orrialdeko zabalgarri bat egiten amaitzen dogu. Bardin gertatu zan Jesusen hilobiarenagaz, 500 urtetan lehen aldiz zabalduko zan eta azkenean lan grafiko indartsua egin genduan, 8 edo 9 orrialdeko grafikoa.

Infografiaren magoa? Historiaren berre-raikitzailea? Infografiaren maisua? Zuk zelan deituko zeunskizu zeure buruari?

Orain dala gitxi egindako alkarrizketa batean "infografiaren esploratzaile" gisa aurkeztu ninduen, eta gustau jatan, egiten dodana adierazten dauelako. Ikertu beharreko guneetara bidaiatzea, ze kontauko dozun pentsatzea... Paperagaz be asko esperimentau eta esplorau dogu, STOP Motion animazioetarako panpinekaz, eta gauza bera mundu digitalera egokitzeke.

Animazinorako pausua, ze garrantzia izan dau zuretzat?

Oso pozik nago pausu horregaz, oso interesgarria eta atsegina izan zan. Hemen hasi nintzanean, dena papererako zan, eta iPad-a iritsi zanean, gauza digitalak egitea pentsau behar izan zan, erosotasun-gunetik atera eta zu berrasmatu, interaktiboetan pentsau, papererako egiten genduna digitalera zelan eraman. Oso ariketa ona izan zan. Gaztetan animazioak egin nebazan eta hemen komentau neban eta ideia gustau jakezan. Zelanbait be erreferentea izan ginela uste dot, oso gauza desbardinak egiten genduzelako, teknika desbardinak, kontatzeko modu desbardinak, eta apur bat jarraitzen dogu horregaz.

Zure proiektu askok ondare historikoa birsortzen dabe, edo jada ikusi ez dogu-

matzu

ZAINDU ETA GOZATU

pre zero

Etorkizun garbiago bat izateko ingurumeneko soluzioak

zan ondarearen eta naturaren alderdiak. Erronka bat da. Iraganeko argazkilaria sentitzen zara, kontatzen dana paper batean transmititzeko erantzukizunagaz, zuk sortu behar duzun irudi bat irudikatzeko erantzukizunagaz. Adibidez, Hattusatik geratzen diran hondarrak, hititen antxinako hiriburua zana, Turkian, mugatuak dira, baina adituek lan eginez, haiek informazioa helarazten deusue, idatzita dagoelako edo zeramikan dagoelako edo marrazkiak dagoelako, eta zuk pieza guztiak ia puzzle batean bezala alkarregaz jartzen dozuz, eta zelan izan eitekean berreraikitzea lortzen dozu. Oso pozgarria da, batzuetan irakurleak ikusteko modu bakarra dalako.

Lantzen dozuzen gaien artean, natura, arkeologia, arkitektura... badozu ilustratzeko edo animazino bat egiteko gogoenik?

Gustatzen jatan gauzetako bat aldatzea da, eta nahiz eta natur zientziak, animaliak, asko gustatzen jatezen, beharbada historia apur bat gehiago gustatzen jat. Trajanoren zutabea, Granadako Alhambra, iaz egin nebana, euskal bale-arrantzaileen historia edo Pazko uhartean moaisak mugitzeko erak, oso deigarria da niretzat. Gainera, zorionez, proiektu bakoitzean munduko leku oso desbardinetera bidaiatu behar dozu.

Ze bidaia-proiektu tandem nabarmen-duko zeunke?

Pazko uhartearen proiektua. Telebistagaz bidaiatu neban, dokumental bat egin ebana, eta idazleagaz. Moai bat mugitzeko esperimentoa egin genduan, soke-tatik tiraka, funtzionatuko ote eban jakin barik, hiru egun eta estatua erori egingo zalakoan, mugitzen hasi zan arte. Ni esperimentuaren parte izan nintzan, sokekaz tiraka aritu nintzan, eta soketatik tiraka tona batzuetako moai bat mugitzearen sentsazioa esperientzia handia izan zan.

Eta proiektuen artean, zein nabarmen-duko zeunke?

O, ba, seme-alaba bat baino gehiago dozuzenean bezala da, eta nor maite dozu gehiago? Ez dakit, egia esan, Trajanoren zutabea oso berezia izan zan, bikingoak be bai, edo marrazoak...

Bidaiak, adituek egoteko pribilegioa, marrazteko, sortzeko eta digitalizatzeko prozesua... zein da gehien hunkitzen zaituen fasea?

Nik uste dot prozesu osoaz gozatzen dotala. Batzuetan krisiren bat izaten dozu, diseinuak ez dauelako funtzionatzen edo ilustrazioa ez jatzulako ateratzen... baina kontzeptua, ideiak aukeratzea eta konektatzea, zati hori oso garrantzitsua da, orduan erabaki behar dozulako zer kon-

2006an, gaztelaniaz berba egiten eban persona batek Estatu Batuetatik deitu eustan, National Geographic-ekoa zala esanez. Nik ezin sinetsita esan neutson, ertz horiko aldizkaria?

tau gura dozun, baita animazioa edo interaktiboa kontuan hartuko dogun be. Erabaki- tzeko aukera zaila da, adibidez, marrazoen lanan, zeri emon garrantzia? Zelan bizi diran, zelan bidaiatzen daben...

Ilustrazioa sortzeko orduan, ikusleen arreta zelan bereganatu pentsatzen dozu, edo zure ustez zer izan behar dauen jarraitzen dozu.

Ni saiatzen naz ikuslea grafikora iristen danean ikusmen-elementu nagusi bat izan daian, atentzioa emoteko. Historia kontatzeko orduan be hori baloratzen dot, batzuetan informazio interesgarria daukazulako, baina beharbada ez dozu

kontatzeko euskarri bisualik. Orduan, soluzino bisualak izango dabezen eta osagai harrigarriak eta interesgarriak izango dabezen istorioak bilatzen dodaz, ondo kontautako euki argi bategaz, informazio konplejua modu errazean transmitituko dauena.

IA eremu guztietan hedatzea tresna edo kompetentzia lez ikusten dozu?

Nire lana egiten dodan moduan gozatzen dot, ez dot beharrianik ikusten. *National Geographic*-en be ez daukagu baimenduta, orduan ez da erabiltzen. Kompetentzia da, hori seguru, zuk deskribapen bat sartzen dozulako eta IAK ilustrazio bat egiten deusulako. Alde argigarrian, testuetan lagun daikezu, baina infografista bat egon behar da beti atzean, informazioa, diseinua eta dana maneiatzeko. Izan be, hartu beharreko erabaki kopuruagaz ez jat iruditzen adimen artifiziala, oso azkarra izanik, hasten ari danez, oraindik prest dagoen. Uste dot beti egongo dala lekua artisautzako produktuentzat, artistari balioa emotea. Inspirazioa behar da eboluzionatzen jarraitzeko.

Proiektu bakoitzean ikertzaile bategaz egiten dot lan, eta proiektuaren arabera, talde batzuek edo talde handi bategaz. Nire lanaren eta informazioaren arteko lotura dira.

Zelan ikusten dozu zure bilakaera?

Lanean hasi nintzanean ez neban modelorik erabiltzen, denborarik ez neukalako. Orain gauza batzuetarako ereduak erabiltzen dodaz, baliabdie gehiago dodaz, estilo gehiago. Eta gustauko litzaidake denbora apur bat gehiago izatea, beharbada gauza desbardin gehiago probatzeko. Azken urtean *social media*, sare sozialetarako, tiktok eta Instagramerako gauzak egiten ari gara eta estiloa desbardina da. Kritika da beharbada lehenago probau beharko neukeela hau, baina hori be ez zan eurek eskatutakoa. Bestalde, uste dot digitalean asko aurreratu dogula, oso animazio interaktibo desbardinak egin doguz. Paperean, be-



Busturialdea-Urdaibaiko planoa, 2007an Fernando G. Baptistak ilustratua.

egitea, gauzak probatzea... ez geratzea zalantzagaz, eta hau egin izan banu? Hori da nire ustez gakoa, eboluzionatzen jarraitzeko gauzak probatzea. Nire aurreko nagusiak esan eustan, Fernando batzuetan urrutirago joan behar dozu, gero bueltau edo erdian geratzeko.

Euskalduna munduan zarela kontutan hartuta, noz arte uste dozu geratuko zara Estatu Batuetan, Washingtonen?

Nik uste dot % 99 Bilbora bueltauko gara. Hemen oso ondo bizi gara, eta 17 urtean, lagunak dauzkaguz, memoria egin dogu, oroitzapen onak, baina egia esan, Bilbon, Euskal Herrian eta, oro har, Europan dogun bizi-kalidadea hobea dala uste dot. Uste dot bueltauko gara.

UM

Laburbilduz, arriskau egin behar dala.

FGB: Baietz uste dot. Kamikaze bat bezala bez, baina apur bat arriskau, ikasi egiten dalako. Gauza desbardinak probau.

Eta zenbateraino da zortea?

Nik ikusten dodana da lan asko egiten dodala. Jendeak talentu handia dodala dinoste, eta nik esaten dot praktika handia dodala. Bizitza osoan lan egin dot, eta zenbat eta gehiago lan egin, orduan eta trebetasun handiagoa. Zirriborro asko



Fernando G. Baptistak Urdaibain egindako lanetariko bat, Santimamiñeko kobaren kanpokaldean

Lumoko Udaletxea

Ondare isila Gernikako bihotzean

Lumoko Udaletxe zaharra foru hiribilduaren toki nabarmenean dago, Batzar Etxearen eta Gernikako Arbolaren, Klaratarren komentuari eta Europako Herrien parkearen ondoan. Gune estrategikoa da, bere garrantzi historikoagaz bat datorrena. Halanda be, gaur egun ez da erabiltzen eta Gernika-Lumoko eta eskualdeko herritar askok ez dabe ezagutzen. Leite-keena da eraikin honen paretik pasau izana konturatu barik.

Antxinako Lumoko Udaletxea



Lumoko erdigunea

Gernika eta Lumoren arteko historia Erdi Aroan hasi zan, Gernika Lumoko auzo bat zanean, portu jarduera betez

Eraikin hau, Lumoko Udaletxe zaharra, Bizkaiko historia aberatsaren lekuko da, komunitadeek denboran zehar izan dabezen aldaketa eta egokitzapenen isla. Santa Klara kalean dago, Gernikazarra izeneko parajearen, Lumoko elizatearen. 15. eraikina da, eta, aurrealdean, Juntetxea eta Arbola daukoz. Eskumaldean, Santa Klara komentua eta eleiza daukoz, eta atzealdean eta ezkerrealdean, Europako Herrien parkea. XIX. mendeko neoklasizismoaren irizpide arkitektonikoen arabera eraikitako oinplano angeluzuzeneko eraikin honetarako ingurune historikoa da, baina landa-itxura dauko, inguruaren estetikara ezin hobeto egokituz. Fatxada apaingarri tradizionalaz apainduta dago, esaterako, burdin forjauzko balkoia eta armari heraldikoa.

Gernika-Lumo da gaur egun udalerriaren izena eta Gernikako foru hiribildua bere elizate zaharrari, Lumori, 1882ko urtarilaren 8an atxiki jakonean sortu zan. 1366. urtean Bizkaiko Jaun Don Tello Kondeak Gernikako hiribildua sortu ebanetik bien arteko etenbako liskar eta auziak konpontzeko irtenbide politikoa izan zan alkartze-dekretu hori.

Gernika eta Lumoaren arteko historia Erdi Aroan hasi zan, Gernika Lumoko auzoa

zanean, portu jarduera betez. Hemen-dik merkataritza ibilbide garrantzitsuak igarotzen ziran, esaterako Done Jakue bidea (kostaldetik), Bizkaiko Jaunak onartua izateko egiten eban Zin Bidea, edota Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea, Bermeotik Durangorantz abiatzen zana Gernikatik pasatuz eta handik Gaztelaraino jarraitzen ebana. Gernika portua izatea kokapen estrategikoa zan, eta hori izan zan 1366an Don Tello kondeak Gernika sortu eta dekretuz hiri bihurtzeko faktoreetako bat. Desanexinoari esker lur, eskubide eta pribilegio handiak lortu ebezan Gerniakak.

Hau da, Lumok bere gune garrantzitsuetako bat galdu eban, eta, aldi berean, bere lurraldearen zati handi bat be bai, eta horregaitik borrokatu zan berea zala

>>>

Aurrealdean, Juntetxea eta Arbola daukoz, eskumaldean, Santa Klara Komentua eta eleiza, eta atzealdean ta ezkerrealdean, Europako Herrien parkea

uste ebanagaitik. Bi herriak auzi desbar-dinetan murgildu ziran eta 1575ean Lu-mok garaipen garrantzitsua lortu eban, Gernika mugarrizera behartuz. Hirigunea 5 kaletara murriztuta geratu zan: Arteka-le, Goenkale, Barrenkale eta Azokakale, eta zeharkako kale bat, Santa Maria. Hau da, Gernikako Arbola sinbolikoa Lumoko jurisdikzioan geratu zan. Halanda be, Lumoko elizatearen eta Gernikako hiri-bilduaren arteko auziak 1882ko urtarri-

laren 8an amaitu ziran, eta urte horre-tan Gernikak eta Lumok bat egin eben, udal-unidade bakarra osatuz.

Lumok eta Gernikak bat egin ebenean udaletxe bakarra izatera pasa ziran, eta aukeratutako udaletxea Gernikakoa izan zan. Lumokoak, beraz, administrazio-eta gobernu-gune moduan erabiltze-ari utzi eutson, beste erabilera batzuk hartzeko. Lehenengo bilera eta ekitaldi

komunitarioetarako gune bezala, gero le-hen eskola bezala eta ondoren Gernikako Juntetxeko Artxibo bezala. Gaur egun ez da erabiltzen, eta hemen gordetzen zan artxibo-material guztia Bilbon dagoen Bizkaiko Foru Agiritegira eraman zan. Era-bilera barri baten zain dagoen bitartean, eraikina Gernika-Lumoko historia, kultura eta nortasunaren oroigarri eta sinbolo da.

UM

TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo
jasangarrirako elkarteak

Tourdaibai
Urdaibaiko turismo jasangarriko elkarteak

ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU
* Nos une el futuro



Visit Urdaibai © bai Nueva Europa

bisita gidatuak

VISIT
GERNICA



Kultura
Natura
Ondarea
Turismo Jasangarria



www.visiturdaibai.com
634 243 762 @visiturdaibai

Yosu Meabebasterrechea

ARTESANIA VASCA

"Harriak betirokoaren gogortasuna dauko"

Yosu Meabebasterrechearen Artesania Vasca tailerrak 40 urte daramatza Muxikan, Ariatza auzoan, Gernika-Lumo eta Amorebieta-Etxano lotzen dauzen errepidearen ondoan. Sarre-rako arkua eta kartela bide horretan ibili ohi diran persona guztien irudi bisualaren parte dira. Barruan, bere lanen erakusketa txiki bat gordetzen dau, eta ezagutzen ez dabena harrituko litzateke artisau honen harrizko diseinu zoragarriekaz.



Yosu Meabebasterrechea bere tailerrean



Artesania Vasca

Harria da bere espezialidadea, baina bere lehen pausuak egurrari lotuta egon ziran. Lizarran, tailuaren artea ezagutu eban. Bere dedikazioari eta marrazketarako eukan talentuari esker laster menderatu eban teknika hau. Kutxatzarrak, tailak eta etxeetarako kartelak saltzen hasi zan, baina, denboragaz, bezero batzuk etxeko fatxadetarako armarrak eskatzen hasi jakozan. "Egurra beti dago dilatazioen eta tenperatura-aldaketan uzkuritzen menpe, eta horrek harriagaz lan egitea planteatzera eraman ninduan. Gubieta-tik zintzeletara pasatu nintzan, eta horrela hasi nintzan harri-zizelkatzean. Gainera, azoketan, hasieran, egurraren artisau gutxi ginan, baina, parte hartzeko eskaintzen ebezan dirulaguntzekaz, gero eta gehiago ginan, eta horrek lehia handia sortu eban. Orduan erabaki neban harrian aritzea, ia inor ez egoan lanbidean" azaldu dau Yosu

Meabebasterrecheak. Muxikakoa da, eta orain dala 40 urtetik dago Yosuren tailerra, ailitak pinuak gordetzeko erabiltzen eban lursail batean, Muxikako Ariatza auzoan. Etxeetarako kartelak, fatxadetarako armarrak heraldikoak, menhirrak eta lorategirako hilarri erraldoiak dira bere bezeroen eskaera nagusietako batzuk. Merkatuan ez dagoen pieza bereziak. "Esklusiboak dira, pieza bakarrak, bereizi egin behar dalako. Diseinua asko gustatzen jat, eta diseinu barriak sortzen dodaz, sinpleagoak diran antxinako marrazki originaletatik abiatuta. Marrazkia mobidu egiten dot diseinu bereziak sortzeko", azaldu dau Yosuk.

Bere lanean aplikatzen dauen sormena da bere poztasun handienetako bat. Bere jakin-minaren eta sortzeko beharraren emaitza da harrizko esmaltearen teknika. Ustebakoan, ailitaren baserri bateko ogi-labe batean harri bat aurkitu eban, distira "berezi" batzuek. Harria gorde eban, eta handik urte batzuetara ikertu eban

harri horrek zelan izan leikean esmaltea, tenperatura oso altuak behar dauz eta. Yosuk beroari hainbeste eusten eutsoen harri horreen bila hasi zan. Nafarroako Pirinioetan aurkitu ebazan, artzainek kaltetan esnea irakiteko erabiltzen ebezenak. "Labe bat erosi neban Orbaizetan eta probak egiten hasi nintzan. Harri hauek osagai mineral bat dauke, suaren dilatazioari eta uzkurdurari eusteko. Egun osoa euki daikezuz sutan. Hasieran ez neban ezer lortu, harriak hauts bihurtzen ziran, baina proba eta errore bidez teknika hobetu dot eta orain oso gauza politak diseinatzen dodaz", kontau deusku Yosuk.

Bere langaia, harria, harrobietatik eta marmolerietatik lortzen dau. Bere obra asko espazio publikoan mirets daiteke, udal-letxeetako fatxadetan, armarrak moduan (Muxika edo Ereño, besteak beste). Orain-tsu, Bilboko Udalak agindutako obra garrantzitsu bat inauguratu da. Begoñako elizatea armarrak oroigarria da, basilikaren

*Etxeetarako kartelak,
fatxadetarako
armarrak heraldikoak,
menhirrak eta
lorategirako hilarri
erraldoiak dira bere
bezeroen eskaera
nagusietako batzuk*

ondoan dago, eta 8 tonako pisua dauko. 1639ko grabadu bat erreproduzitzen dau, Begoñako Elizateko lehen blasoia. "Niretzat, lan guztiek poz handia emoten deuste, txikiak izan arren. Bat nabarmendu behar badot, adibidez, familia osoaren eskuak daukozen menhir bat izan daiteke. Aiti- >>>

ta-amamak, gurasoak, lobak... oso polita izan zan. Era honetako oso lan politik egin dodaz. Harriak betirokoaren gogortasuna dauko, harrian egiten dozun edozein lan, badakizu milaka urteko bermea daukola, betirako iraunkortasuna, eta egiten dozun edozer urte eta urteetarako geratuko da hemen. Ehundura, kolore eta sortzeko aukera asko be eskaintzen dauz. Bezero batzuek gauza bitxiak eskatzen dabez, eta nik lan guztiak bardin zaintzen dodaz. Harriz edozer egiten dot. Kontua barritzea da" esan deusku Yosuk, eta gutxien gus-tatzen jakona letrak zizelkatzea dala esan deusku. "Ez dut marrazkiak edo bestelako tailak egiten bezainbeste gozatzen".

Bere tailerra bere lanaren erakusketa iraunkorra da. Bertan bezero askok buruan daukeen proiektuetarako ideiak aurkitzen dabez

GEURE HARRI GORRIAREN EDERTA-SUNA ETA ZAILTASUNA

Harria lantzen dauen Muxikako artisau lez, izugarri baloratzen dau Gautegiz Ar-teaga eta Ereñoko harrobietako kareharri gorria. Bere tailerraren egituran harri hori dauka eta bertako harri honegaz egin dauzen lanen artean hainbat eskultura dagoz, horreen artean, tamaina errealeko Mikeldi bat, *"Bilboko Museora joan behar izan neban, eskultura hau dagoen lekura, neurri guztiak hartzera, eta baita errepro-dukzinoa egiteko baimenak eskatzera be".* Penaz dino harri hori daukeen harrobiak ez dirala jada ustiatzen. *"Material desbar-dina da, berezia eta polita",* baina onartzen dau material hori lantzeko zaila dala, bere betagaitik, kolore eta forma aldakorrekaz. *"Marrazki eta kolore askoko harria da, zuri, gorri, granate, arrosa, besteak beste, izenak zizelkatzeko, adibidez, oso zaila da, letrak ez diralako ondo bereizten".* Bi-txia bada be, gaur egun harri horregaz egindako eraikin edo egituraren bat za-

harbarritu behar bada, Nafarroako eta Huescako harrobietara jotzen dala esan deusku. *"Antzeko harria da, baina urdina-go. Antzeko konposatu bategaz".*

Azokak Yosuren lanaren erakusleiho han-di bat dira. Artisautza azoketara joaten da, eta Gernikako Urriko Azken Astelehenera be ez da inoiz falta izan. Bere webguneaz gain, bere tailerra bere lanaren erakus-keta iraunkorra be bada. Bertan, bezero askok buruan daukeen proiektuetarako ideiak aurkitzen dabez. Harrizko esmal-tezko diseinuak, eskuak zizelkatutako harriak, lorategirako hilarri ikusgarriak, di-seinu barritzaileekaz, baita berak diseina-tutako lanpara originalak be. Bere disei-nuetako batzuk bereziki babesten dauz eta bere tailerrean bakarrik erakusten dauz. Izan be, inoiz ikusi dau bere sor-



Familia oso bateko eskuak daukozen menhira

kuntzetako batzuk *"material plastikoan"* kopiau dabezela.

Yosu jubiladu aktiboa lez definitzen da gaur egun, eta bere lanak erreleborik ez daukola ziurtatzen dau. Batzuek pro-posatu deutsoe lanbide hau ikasteko eskolak jasotzea, baina esaten deusku irakastea be berak ez daukon artea dala, eta, beraz, beti uko egin deutse eskain-tza horreei. *"Egia esateko, hobe da beste zerbaitetan aritzea, eta hau zaletasun bat izatea, zaila baita lan honegaz bizitzea, oso polita izan arren. Nik zorte handia izan dot, nire lanetik bizi ahal izan naz eta gai-nera gozatu egin dot".*

UM

KANALA BEACH

Jomuga gastronomikoa Urdaibaiko bihotzean



Kanala Beachek esperientzia gas-tronomiko apartekoa proposatzen dau Urdaibaiko bihotzean, kontu handiz diseinatutako lau guneekez. Kanala hondartzaren ondoan eta Laidatik oso ger-tu, leku ezin hobea da gustu guztiak ase-tzeko eta bisitari bakoitzaren beharretara egokitzeko pentsautako sukaldaritza-es-kaintzaz gozatzeko.

GUNE BAKOITZAK BERE NORTASUNA DAUKO

BARRA: Lehenengo topagunea da, eguna armozu on bategaz hasteko, hautatutako ardoaz gozatzeko edo gure pintxoak das-tatzeko leku aproposa: karta mini forma-tuan berrinterpretatzen daben mokadu txikiak. Espazio informala, dinamikoa eta zaporez betea.

TERRAZA: Txoko argitsua, lasaia eta *casual*. Bertan, Alacanteko estiloko arrozak dira bereizgarriak. Kanala Beachen arima me-diterraneo da, lagunekaz, bikotekideagaz edo familiagaz batera gozatzeko pentsatua. Hemen be apartekoak dira geure arrain eta okela erreak (espazio estalia).

JANTOKI GASTRONOMIKOA: Kanala Bea-chedo bihotza. Xehetasunez zaindutako espazioa. Bertan, goi mailako gastronomia zintzotasunez, Kmo produktuarekiko erres-



AUTORE-SUKALDARITZA, IKUSPEGI GARAIKIDEDO ZAPORE TRADIZIO-NALAK

Jon Otxandio Argintxona- Kanala Beacheko sukaldari exekutiboa

Sutegi eta lapiko artean hazia, bere kultura gastronomikoa su motelean prestau da. *"Harro esan daiket nire sustraietan sukalderako grina dagoela".* Leioako Ostalaritza Eskolan hezia, Zornotzako Boroa jatetxe ospetsuan egin eban lan, eta zazpi urte emon ebezan bertan. Bertan bere teknika hobetu eta bere sukaldaritza-

nortasuna sendotu eban, Mexikoko lurretan etapa barri bati ekin aurretik. *"Aitana eta Emilio jatetxeetako sukaldeburu gisa, usain, ehundura, zapore eta sukaldaritza-teknika barriak aurkitu nebazan. Baina sustraiek tira egiten dabe eta Donostiako Aitana jatetxea zabaltzeaz arduratu nintzan, fusino sukaldaritzan espezializatua".*

2024ko ekainetik aurrera, talde handi bategaz batera, Kanala Beacheko sukaldea zuzentzen dau. *"Proiektu ilusionagarria eta sukaldaritza naturalaren aldeko apustua egiten dot bertan, nortasunagaz, kalidadezko produktuagaz eta geure sormen-ukitua emonez".* Sukaldaria pertsonalki inplikatzten da xehetasun bakoitzean, estilo propioko produktu tradizionalaren aldeko apustu garbia eginez. Bera joaten da Lekeitioko portura eguneko arraina aukeratzera. Kanala Beachen hurbileko produktua gurtzen da: Gautegiz Arteagako ortuetako barazkiak, bertoko arrainak eta goi sukaldaritzako teknika aurreratuenekaz egindako aparteko okelak, esperientzia gastronomiko ahaztezina eskaintzeko.

"Niri jatekoa egitea gustatzen jat, jendeak gozatzea, jendeak gozo jatea".



petuz eta tradizioaren ikuspegi aban-goardistaz adierazten da. Esperientzia sensoriala, tokikoa arte bihurtuz, kalida-dea-prezioa proposamen apartekoagaz

CHILL OUT: Euskadiko Ibiza. Gune atse-dena, sofa zabalekaz eta giro lasaiagaz, guztiz aproposa bazkalondoa luzatzeko koktel bategaz, musika onagaz eta presa bako alkarrizketekaz. Deskonektatzeko edo barriz konektatzeko lekua.

UM

Joxe Migelen batela, txitxarri^oa ta berdela...



Kantauriko arrantza-denboraldia berdelaren kosteragaz hasten da. Arrain urdina da, arrainkia eta nutrizino-ezaugarriengaitik preziatua. Bere balio komertziala modu esponentzialean garatu dau, euskal portuetan baztertua izatetik eta Eusko Label produktua izatera igaro da.

*Eusko Labeldun
produktuen parte da
berdela, arrantza-
produktuen gaman*

Lepoa berdexka dauko, sabel zilarreztatua eta lerro baltz batzuk daukoz bizkarrean. Berdelak 50 zentimetro luze da gehienez, eta kilo erdi inguru pisatzen dau. Itsasgainetik gertu dagoen banku handietan mugitzen da, eta amuagaz nahiz inguraketa-modalidadean arrantzatzen da. Neguaren zati handi batean itsasoaren hondoan egoten da, ia elikatu barik, eta udaberria hurbiltzean, itsasgainera atera, kostaldera hurbildu eta zooplanktona, krustazeoak, sardinak, antxoak eta abar jaten dabe.

Berdela (*Scomber scombrus*) eskombri-
doen familiakoa da, atuna kasu, eta oso
36 URDAIBAI MAGAZINE

ohikoa da Mediterraneo osoan, Itsaso Baltzean eta Atlantikoan. Ez dauko beste arrain mota batzuen glamourra, esaterako besigua, erreboiloa edo zapoa, baina apurka-apurka bere lekua hartzen joan da arrandegietan. Eskaera handitzen joan da, neurri handi batean bere prezio ekonomikoagaitik, baina baita nutrizino-ezaugarri bikainengaitik be. Omega-3 gantz-azidotan eta balio biologiko handiko proteinetan aberatsa dan arraina da; proteinetan daukon edukia okelan edo arrautzetan aurkitzen dogunaren nahiko antzekoa da. Gainera, bere arrainkia bitamina eta mineral iturri handia da. Sabore oneko elikagaia da, erabatekoa eta osasungarria. Beste leku batzuetan *caballa* izenez be ezagutzen da, *sarda* Kantabrian, edo *xar* da eta *rincha* Galizian.

Euskadin harrapau ohi dan espeziea da eta orain dala bi urtetik Eusko Labeldun produktuen parte da arrantza-produktuen gaman, Gure Arrantza izenekoa. Bereizgarriagaz identifikautako arraina *Scomber scombrus* espezieko berdela da, baxurako euskal artisau-flotaren ohiko eremuan harrapatua, amu- eta inguraketa-modalidadeetan.

ARRANTZALEEN KEZKA

Oso preziatua da geure kostaldeetako portu eta lonjetan, eta arrantza ekonomia-
miaren pieza garrantzitsua da. Halanda be, berdelaren biomasaren egoera delikatu dala eta, aurtan kuota nabarmen murriztuta hasi da kanpaina, iaz baino % 22 gutxiago, eta horrek kuota 22 miliar kilotan itxi dau. Ez hori bakarrik, arrantza-

leen esanetan, aurtengo kostera "erabateko hondamendia" izan da. Islandia eta Norvegia bezalako herrialdeek kontrol bako berdela arrantzatzen dabela salatu dabe (160 milioi kilo eta 300 milioi kilo, hurrenez hurren) eta horrek gure kostaldera ez iristea eragiten dau. Gehiegizko arrantza horren ondorioz biomasa nabarmen murrizten ari ote dan jakiteko, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioak, Ozeanografia Institutuagaz batera, kanpaina bat egin dau Kantauri itsasoan eta Bizkaiko Golkoan gaur egun dagoen berdel kantidadea neurtzeko, biomasa arrautzetatik abiatuta kalkulatzeko helburuagaz.

UM

ERRECETA

Berdela piper berdeekaz

OSAGAIK, 2 LAGUNENTZAT

- 2 berdel
- 8 piper berde
- Olio
- 50 gr. gurin
- arrautza 1
- gatz
- piperbaltz zuria
- 2 koilarakada limoi-zuku

Atera berdelen solomoak kontu handiz eta moztu 10 cm-ko zatitan. Erreserbau arraina, eta, soberakinekaz, prestau arrain-salda bat.

Salda, gurina, arrautza, piperbaltza eta limoi-zukuagaz Holandar saltsa prestau.

Prijidu piperrak, zabaldu eta kendu haziak.

Prijidu solomoak olio gitxigaz.

Jarri plater gainean koilarakada pare bat saltsa holandar, jarri izar forman zabaldutako piperrak saltsaren gainean, jarri solomoak piper bakoitzaren gainean. Apaindu platera piper berdeen tirakaz.



Prozesionariaren ARRISKUAK



Prozesionaria. Irudia: Freepik

Prozesionaria edo pinu-beldarra baso koniferoen izurrite kaltegarrienetako bat bihur daitekeen intsektua da eta ekosistemaren osasunean zein osasun publikoan kalte handiak eragiten dabez. Bizirauteko eta azkar hedatzeko bizi-ziklo egokituagaz, neguaren amaieran eta udaberriaren hasieran, pertsonentzat eta animalientzat oso arriskutsuak dira.

Bere izen zientifikoa *Thaumetopoea pityocampa* da, baina prozesionaria edo pinu-beldarra bezala ezagutzen da. Izan be, taldean mugitzen dira, lerro indiarak osatuz, prozesino baten antzekoak. Gaueko tximeleta autoktonoa da, maiatzean hegana egiten hasten da eta baso zein osasun publikorako zenbait arrisku sorrazten dauz.

Prozesionariako tximeleta helduak udaren amaieran edo udazkenaren hasieran jartzen dauz arrautzak pinuetan, zuhaitzetatik zintzilik dagoen boltsetan. Sistema horrek harraparien eta baldintza klimatiko kaltegarrien aurkako babesa emoten deutse. Inkubazino-aldi baten ondoren, neguaren amaieran eta udaberriaren hasieran jaiotzen dira, eta pinuetatik jaisten dira lurperatzeko eta metamorfosia hasteko leku bat bilatzeko. Larbak prozesiona-

riaren itxurarik ezagunena eta arriskutsuena dira. Jaitsiera-prozesu horretan osatzen dabez errenkadak edo "prozesinoak", hortik hartzen dabe euren izen arrunta. Behin lurrean, larbak lurperatu egiten dira eta kapulu bat eratzen dabe, bertan pupa bihurtzen dira eta helduak bezala agertzen dira udaberriaren amaieran eta udaren hasieran. Helduak gaueko tximeletak dira, kolore marroi grisaxkakoak, eta oso bizitza laburra dauke, pare bat egunekoa gitxi

Gaueko tximeleta autoktonoa da, maiatzean hegana egiten hasten da eta baso zein osasun publikorako arriskutsuak dira

gorabehera. Ugaltzea da hauen funtzino bakarra. Emeek arrautzak jartzeko pinu egokia bilatzen dabe, eta, horrela, ziklo barri bat hasten da.

BASOGINTZAKO ARAZOA

Larbak pinuen orratzen gainean elikatzeko zuhaitzetako hostoak erortzea eragiten dau, ahuldu egiten dauz eta beste izurrite eta gaixotasun batzuekiko sentikorrago bihurtzen dauz. Zuhaitzaren heriotza be ekar daike, hainbat urtez jarraian luzatzen bada. Klima aldaketak eta tenperatura altuek intsektu honen garapen arerreratua erraztu dabe eremu askotan, larbak otsailean ikus daitezke eta pinuaren monolaborantzek hedapenerako ingurune ezin hobea eskaintzen deutse.

ZERGATIK DIRA ARRISKUTSUAK?

Pertsonentzat arriskutsuak dira bere ule erremingarriagaitik. Bakoitzak 500.000 eta 600.000 ule inguru daukoz, eta ez dira soilik ezaugarri estetiko bat, substantzia pozoitsu bat dauke, thaumetopoeina izeneko toxina bat. Honek, urtikaria, negarria, arnasketa-arazoak eta erreakzio anafilaktikoak eragin daike. Gainera, larbak mehatxupean sentitzen badira, ule hauek airean aska daiketz, eta horrek ezusteko kontaktua izateko probabilitatea handitzen dau. Baina animaliak dira, batez be txakurrak, prozesionariaren eraginetarako bereziki kalteberak. Txakurrek, beldarrak usaindu edo miazkatzean, ule erremingarriak har daiketz, eta horrek mingainaren eta musturraren hantura larria eragin daiketz, baita kaltetutako ehunen nekrosia eragin be. Azkar tratatzen ez bada, prozesionariarekiko kontaktua hilgarria izan daiteke animalientzat.

KONTROL-SISTEMAK

Pinuko prozesionaria kudeatzeko eta ezabatzeko hainbat teknika dagoz, baina



Prozesionariako ale helduak. Arra goian eta emea behean CC 2.0 by Ben Sale

ikuspegi integratua izan behar dau, zuhaitzengan, personengan eta animalien gan daukon eragina minimizatzeko. Alde batetik, kontrol biologikoa dago, hau da, harrapari naturalak edo patogenoak erabiltzea prozesionario-populazinoak kontrolpean eukitzeko. Beste alde batetik, feromonen tranpak dagoz, arrak erakartzen dabezen feromona sexualak daukatenak, hauek harrapauta geratzen dira eta ezin dira ernaldu. Modu naturalean be

Larbak prozesionariaren itxurarik ezagunena eta arriskutsuena dira

>>>

Klima aldaketak eta temperatura altuek intsektu honen garapena aurreratua erraztu dabe eremu askotan



Prozesionariako habiak

emoten da hauen desagerpena, batez be hiriguneetan eta parkeetan. Eta muturreko kasuetan erabiltzen dira tratamendu kimikoak. Beldarraren aurkako intsektizida eraginkorrak dira, eta araudi zorrotz baten arabera aplikatu behar dira. Kontrolatzeko modu asko asko dagoz baina pinuaren prozesionariarako kontrol-metodirik onena naturaren oreka bera izango litzateke, naturaren oreka aldatuko ez balitz, harra-

pari ugari daukozelako, esaterako txoriak, inurri gorriak, liztorrak edo saguzarrak.

ZER EGIN KONTAKTUA IZANEZ GERO

Persona bat edo animalia bat toxinak infektatu badau, pausu hauek emon behar dira: Eskunarruekaz edo pintzakaz, kendu prozesino-beldarra edo kutsatutako eremuan geratzen diran uleak, garbitu ur askogaz, zaurietan igurtzi, manipulau edo

presinorik egin barik. Personen kasuan, hartu mina arintzeko botikaren bat eta joan medikuarengana sukarra edo arnas arazoak dagozenez. Animalien kasuan, albaitaritza-zentro batera joan. **UM**



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu



ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

www.eve.eus

GURE KIROLAK ETA KULTURA DIREN HERRI KIROLAK SUSTATUZ



SUSTABIZ
FUNDATZIOA

Gertuen dozun parlamentua Tu parlamento más cercano



Gernika



Abellaneda



Gerediaga



Bilbao

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

www.jjggbizkaia.eus



bbk Klima

Urdaibai Ingurumen Hezkuntza Proiektua

40 urte baino gehiago jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde hezten

Urdaibai Ingurumen Hezkuntza Proiektua (UIHP) 1982an sortu zan, BBKren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko akordioari esker, Bizkaiko ikasleak ingurumena zaintzearen garrantziaren inguruan sensibilizatzeko eta hezteko helburuagaz.

Proiektu hau BBK Urdaibain garatzen da, Biosferaren Erreserban bertan dagoen esperientzia-parkean, eta Bizkaiko ikastetxeen zerbitzura dago. Ingurumen-hezkuntzaren aldeko ekimen honek, iraunkortasunarekiko sensibilizazioa eta konzientziazioa, ezagutza eta jarrera proaktiboak (indibidualak zein kolektiboak) sustatzen dauz.

"Lurra", "Biodibertsitatea" eta "Planeta" proiektuen bidez, eta hezkuntza-jardueren bidez, guneak iraunkortasunaren aldeko ekintza sustatzen dau. Ikuspegi hori ez da bakarrik irakaskuntza teorikoan oinarritzen, esperientzia praktikoa

eta geure ingurunea zaintzeko konpromiso zuzenean be oinarritzen da. Proiektuko jarduerak irakatsi eta ikasteko prozesu baten bidez garatzen dira, esperientziazioa eta ikerketan oinarrituta. Proiektu hauek hainbat ikastetxetako ikasleen arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatzeko tailerrekaz osotuko dira.

Bizkaiko Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1. eta 2. mailako ikastetxeei zuzenduta dago. Urtero 2.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dabe programa honetan, 4 eguneko egonaldiakaz.

HOBKUNTZA-OBRAK

BBK-k ingurumena babesteko konpromisoari eusten deutso, baita bere instalazioak etenbarik hobetzeko konpromisoari be. Horregaitik, uda honetan hasi dira 2026ko ekainera arte luzatuko diran obrak. 2025-2026 ikasturtea apur bat desbardina izango dan arren, UIHPk erabat aktibo jarraituko dau, Bizkaiko ikasleek esperientzia apartekoaz gozatzeko eta BBK Urdaibai zentroan egun ahaztezinak bizitzeko aukera izango dabela bermatuz.

40 URTEEN LABURPENA:

Urteak aurrera egin ahala, proiektua egokitzen joan da. Eskola taldeei eskaintzen jakezan lehen proiektuak honako hauek izan ziran: **Basoa, Baserria, Ura**; geroago Planeta Berdea, Itsasadarra eta Lurra proiektua sartu zan, eta gaur egun **Planeta, Ura, Lurzorua eta Biodibertsitatea** proiektuak eskaintzen dira.



Proiektuaren garapenean, 40 urte hauetan **aldaketa garrantzitsuak izan dira**, esaterako animaliak kentzea; izan be, 2016. urtera arte, txerriak, ahuntzak, oilaskoak, zaldiak, ardiak eta behiak genduzan zentroan. Animalien zaintza proiektuei lotuta egoan.

Ikasgelan egindako lanagaz batera, **gazteek hainbat irteera egiten dabez ikasgelan landutakoa bertatik bertara ikusi eta esperimentatzeko**. Irteerak honakoak izaten dira: merkatura, paduretara, errebara eta basora. Bidaiek trenez egiten dira, eta talde bakoitza UIHPko irakasleekaz joaten da.



Proiektuaren beste jarduera bat **tailerrak** dira. Hemen, ikasleek autonomia pertsonala eta egindako lanarekiko gogobetetzea garatzen dabe, sortzeko eta adierazteko gaitasuna garatzen dabe, eta hainbat ikastetxetako ikasleen arteko harremanetarako eta lankidetzarako espazio bat sustatzen dabe. Tailerrak hauek dira: zeramika, sukaldaritza, kosmetika, koadernaketa, argazkia eta mihimena.

Proiektuan **inklusinoa** beti egon da presente, eta, horregaitik, premina bereziak daukozen neska-mutilek proiektuan parte hartu dabe, beharizanetara egindako egokitzapenari esker

Ikastetxe batzuk **8oko hamarkadan** hasi ziran proiektuan, eta gaur egun parte hartzen jarraitzen dabe.

40 urte hauetan, Bizkaiko ikastetxe askok parte hartu dabe proiektuan. **Lehentasuna emoten jake proiektuan inoiz parte hartu ez daben ikastetxeei**, ikastetxe guztiek proiektua ezagutzeko aukera izan daiezan.

Bataz beste **2.230 ikasle ikasturtean**.

HELBURUA: Bizkaiko neska-mutilei naturara, komunikazinora eta bizikidetzara hurbiltzen lagunduko deuten ingurune fisiko eta pedagogiko bat eskaintzea; eta irakasleei, pedagogia aktiboko testuinguru batean esperientzia pedagogikoak eta materialak lantzeko leku bat eskaintzea.

IZENA EMOTEKO

2025-2026 ikasturterako eskaerak **maiatzaren 5etik 23ra**, "BBK ETA ZU" plataformaren bidez (<https://www.bbkeus.es/proyectos/uihp/>)

BBK URDAIBAI ZENTROA

uihp-ejgv@bbk.eus
94 687 0710
Arreta-orduak: de 8:30 a 15:00
Abiña auzoa z/g
48350, Busturia. Bizkaia.



Herri kirolak bultzatuz

Herri Kirolak, Euskal Pilota eta Arrauna sustatzeko Sustabiz Fundazioak *Gure Kirolak Sustatzen Jardunaldi Parte-hartzaileak 2025* programa aurkeztu dau. Programa honek, Busturialdea-Urdai-baiko hogeitaz udalerrietan, topaketa parte-hartzaileak antolatzear datza eskola adineko (6 eta 14 urte bitarteko) neska-mutileei zuzenduta. Jardunaldi hauek aurreko edizinoetan arrakasta handia izan dabe. Programak barne hartzen dau herri-kirolak egitea, parte-hartzaileen adinari egokitutako materialakaz eta araudiagaz, eta bereziki inplikatzeko dauz eskualdeko udalak, ikastetxeak eta familiak. Helburu nagusia Euskal Pilota, Arrauna eta Herri Kirolak sustatzea da, bereziki belaunaldi barrien artea, eliteko edozein kirolen anbizio beragaz. Aurkezpenean, halaber, Sustabiz Fundazioaren nobedade guztiak zehaztu dira, esaterako Gernika-Lumoko Santanape kiroldegian daukon entrenamendu-egoitza barria. Bertan, herri kirolen praktikarako egokitutako areto bat dauke.

UM



Gernikako bonbardaketaren 88. urteurrena

Gernika-Lumo nazioarteko bake-mezuaren epizentroa izan da barriro, "*Bakearen aldeko oihua*", karga sinboliko handiko eta memoria aktiboko urteurren honetan. Efemeride honek buruzagi erlijiosoak, gizarte zibileko ordezkariak eta politika arloko persona ospetsuak batu dauz. Ekitaldiaren barruan, "*Bakearen, gerren amaieraren eta nazioarteko legezkotasuna errespetatzearen aldeko oihua*" ekimena aurkeztu da. NBERen Batuen Zibilizazioen arteko Aliantza (UNAOC), Gernika-Lumoko Udala eta Religions for Peace (RfP) izan dira ekimenaren buru, eta gerraren aurkako gaitzespena zabaltzea eta, aldi berean, bake-mezu bat sustatzea eta nazioarteko zuzenbidearen errespetua defendatzea dauko helburu. Gernika-Lumo aukeratu dabe mundu osoan historikoki bonbardatutako hirietan be egingo dan ekitaldi hau aurkezteko.

UM

Gernikako Presoen Ospitale Militarreko biktimei errekonozimentua

Gernika-Lumoko Institutuaren aurrean informazio-panel bat eta monolito bat jarri dira, "*Oroimenaren Leku*" izendatuta. Ikastetxe bihurtu aurreko eraikina ospitale militar bat izan zan, eta guztien 269 errepublikar hil ziran gerrako preso. Pipergorri alkarte gernikarra izan da omenaldi honen bultzatzailea eta Gerrako Presoen Ospitale Militarren gertaera hau Gernikako memoria kolektibo eta publikoan sartzearen bultzatzailea. Ekitaldi instituzionalean Gernika-Lumoko Udaleko, Gernika BHIko, Musika Eskolako, Gogora Memoriaren Institutuko, Memoria Demokratikoaren Estatu Idazkaritzako, Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritzako, Pipergorri alkarteko eta Begoña Fernandez ospitaleko lekuko eta hildakoetako baten alabako ordezkariak parte hartu eben.

UM

Busturialdea-Urdaibaiko EPEren erakundearteko talde eragilearen bilera eta herritarren parte-hartzea

70 pertsona inguruk parte hartu dabe Busturialdea-Urdaibaiko Plan Estrategikoaren (EPE) Eskualdeko bigarren Partaidetza Foroan, Gernikako Elkartegian antolatuta. Foro hau ezaugarri horreetako bigarrena da, abenduan Busturian egin zan lehen edizinoa eta. Oraingoan, parte-hartzaile guztien iritziak jaso dira EPEko 17 proiektu traktore posibleei buruz, eta bost arlo tematiko hauetan egituratu dira: Ura: saneamendu-sarea hobetzea eta hornidurarako irtenbideak; Konektibitatearen mugikortasuna eta hobekuntza: Sollube, Autxagane-Muxika errepidea, Muxika-Bermeo bidegorria eta trenbidearen eta intermodalitatearen sustapena; Etxebizitza eta gizarte-kohesioa; Ekoizpen-sareari lotutako sustapen ekonomikoa eta kalitatezko prestakuntza; Aktibo naturalak, kulturalak, historikoak eta identitarioak. Aurkeztutako 17 proiektuak orain arte garatutako partaidetza-prozesutik sortu dira. Bigarrenez herritarren parte-hartze itzela izan zan Foroan, eta bertan ateratako ondorioetatik abiatuta, Talde eragilearen beste bilera bat egingo da, azkenean Eskualdeko Plan Estrategikoa osatuko daben proiektuak hautatzeko.

UM



E
EGUREN

ÓPTICA
CENTRO AUDITIVO



GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51



JASANGARRITASUNAGAZ
BAT!

Busturialdeko
mankomunitatea

ONTZI ARINAK ENVASES LIGEROS ORGANIKOAK ORGÁNICOS PAPER, KARTOIA PAPEL, CARTÓN BEIRA VIDRIO ERREFUXA RESTOS OLIO ERABILIA ACEITE USADO BERRERABILGARIAK REUTILIZABLES



busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22

Euskararen Etxeak Europako Kontseiluaren 2025eko Museo Onenaren saria jaso dau

Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarreko (PACE) Kultura Batzordeko batzordeko buru dan Konstantinos Efstathiou-en (Zipre, SOC) eskutik jaso dau saria. Ekitaldian, lurdana Acasusok Euskararen Etxeko zuzendariak honakoa azaldu dau: *"Euskararen Etxean gure hizkuntza milaka urtekoa eta aldi berean gaztea dela islatu nahi izan dugu, inguru anitz batean bizitzen eta bizitzeko egokitu zaion garai bakoitzera egokitzeko jakin duelako. Gizarte gisa, euskararen ispiluan islatuta ikusten dugu geure burua".* Elixabete Etxanobek, Bizkaiko agintari go- renak euskararen aldeko diskurtsoa egin eban: *"Pozik gaude Europako Museorik onenaren saria jaso- tzeko, baina argi utzi nahi dugu euskara ez da museoko pieza bat. Euskara hizkuntza bizia da hiztunen eta euskal gizartearen inplikazioari eta konpromisoari esker. Horregatik sari hau euskal gizartearentzat errekonozimendua da, guztiontzako, lanean jarraitzeko bultzada ematen gaituena".* **UM**



Arkitektura-ondarea, Ondarearen Europako Jardunaldien 25. urte-urrenaren gai nagusia

Jardunaldi hauen 25. urteurrena ospatzen da, Lurraldeko kultura-ondarearen dibulgazioan erreferente bihurtuta. Urteetan zehar, Ondarearen Europako Jardunaldiak Bizkaiko ondare historiko eta kulturala berrezagutzeko eta baloratzeko aukera eskaini dabe. Hasieratik nabarmendu dira Bizkaiko ondarea hainbat ikuspegitatik aztertze-ko aukera emon dauen gai bat aukeratu dabelako urtero. Aurton Arkitektura-ondarea da gaia. Eraikin zaharrenetatik hasi eta azken abangoardietaraino. Era berean, eraikuntzagaz eta birgaitzeagaz lotutako lanbideak, teknikak eta materialak ezagutzeko, mendeetan zehar izandako prozesuak eta aldaketak ulertzeko eta etorkizunean izango daben eginkizunari buruz hausnartzeko aukera izango da. **UM**

Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Urdaibaiko Guggenheimi buruzko entzute prozesua bultzatzen dabe

Bi erakundeek, eskualdean Guggenheim Museoa handitze-ko proiektuaren bultzatzaileek, entzute aktiboko prozesu bat aurkeztu dabe, eta gutxienez mila testigantza jasoko dabez 2025ean. Fase desbardinatako prozesua izango da, Agirre Le- hendakaria Centerrek eta New Yorkeko Columbia Unibersi- dadeak gidatua. Horrek metodologia akademiko zorrotza eta garden-bermatuko dau eta Busturialdea garapen- eta ongi- zate-etorkizun baterantz gidatuko daben kontakizunak eta ele- mentu komunak identifikatu ahal izango dira. Prozesua erronkei lankidetzaz dimentsiotik heltzeko beharrezanean oinarrituta dago, eta bost fase izango dauz: (1) eragile guztien mapa egitea, (2) kontakizunak batzea, (3) perzeptzio-patroiak identifikatzea, (4) interpretazio kolektiboa eta (5) iradokizunak eta ekarpenak aurkeztea. Esparru akademikoa sartuta, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak jarrera neutrala izango dabe, eta ho- rrek bermatuko dau entzuteak ahalik eta autonomia handiena izango dauela eta prozesu zintzo eta metodologikoki zorrotza- ren pean garatuko dala. <https://urdaibai.agirrecenter.eus/eu-ES>

UM

URDAIBAIKO GERRARI ETA GERRA-GATAZKEI BURUZKO
IBILBIDE GIDATU APARTA

Azken teknologiarekin. Ibilbideko sentsazio guztiez gozatzeko aukera ematen
dizun APP-a.



ARKEOLOGIA BELIKOA Urdaibain Bakerako ikuspegia

Manu Leguineche (Arratzu 1941 – 2014), gerra-ko- respontsal ospetsua, inspirazio-iturria da. Bere kronika eta gogoetek laguntzen dute, Arrolako kas- troaren gotorlekuari buruzko istorioak, kortsarioen erasoak, Erdi Aroko gatazkak, karlistaldiak, Ger- nikako bonbardaketa, gerra zibila...

- Defentsa. Gotorleku baten bizitzea
- Bakerako inspirazioa
- Itsasoa. Aberastasun eta gatazka iturri

Informazioa: 634.243.762
visiturdaibai@nuevaeuropa.eus
www.visiturdaibai.com

BIZKAIKO MERKATARITZA

OSO PRO

PROAKTIBOA,
PROFESIONALA ETA
OSO GERTUKOA



Bárbara Soroa

DEKORAZIOA ETA BARNE-DISEINUA • BILBO

 **Bizkaia**
denontzat